



**Neurrien Plana, Suspertze,
Eraldatze eta Erresilientzia
Plana egikaritzean eskatzen
diren betekizunak, iruzurraren
aurkako borrokari, interes-
gatazkei, finantzaketa
bikoitzari eta estatu-laguntzei
buruzkoak, eta ingurumenari
kalte nabarmenik ez egitekoak,
betetzeko**

Plangintzako eta Egiturazkoak ez
diren Funtsetako Zuzendaritza

2025eko urtarrila

EDUKIEN AURKIBIDEA

1. Hitzaurrea	3
2. Planaren helburua eta aplikazio-eremua	5
2.1. Helburuak	5
2.2. Aplikazio-eremua	5
2.3. Jarduketa-esparrua	6
3. Iruzuraren eta ustelkeriaren aurkako tresnak eta prozesuak	7
3.1. Testuingurua	7
3.2. Prebentzioko tresnak.....	7
Iruzuraren aurka borroka egiteko adierazpen instituzionala	7
Iruzuraren aurkako konpromisoa laguntzen jakinarazpenetan.....	7
Unitate, zerbitzu edo organo arduraduna	7
Inpaktuaren hasierako ebaluazioa eta arrisku-probabilitatea.....	7
Etika eta Jokabide Kodea.....	10
Prestakuntza eta sentsibilizazioa	10
3.3. Detekzio-tresnak.....	11
Barne-kontrolako sistema	11
Komunikazio-sistema	11
Adierazleen katalogoa (bandera gorriak).....	12
Faltsututako dokumentuak detektatzea.....	13
Egiaztapena eta datuen gurutzaketa.....	13
3.4. Zuzenketa- eta jazarpen-prozesuak	13
4. Interes-gatazkak saihesteko prozesuak eta tresnak	16
4.1. Testuingurua	16
4.2. Prebentzio- eta detekzio-tresnak	17
Tartean diren alderdiei interes-gatazken modalitateen berri ematea.	17
Interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA).....	17
Balizko interes-gatazken prebentzio, detekzio eta kudeaketari buruzko dokumentua.....	18
Egiaztapena eta datuen gurutzaketa.....	18
Adierazleen katalogoa (bandera gorriak).....	19
4.3. Zuzenketa-tresnak	19
<i>Ex post</i> egiaztapen-kontrolak	19
Komunikazio-sistema	19
Jarduera berrikustea, etetea eta/edo amaitutzat ematea	20
5. Estatu-laguntzak eta finantzaketa bikoitza ekiditeko prozesuak eta tresnak	21

5.1.	Testuingurua.....	21
5.2.	Prozesuak eta tresnak.....	21
	Autoebaluazioa.....	21
	Kudeaketa-aitorpena ordainketa-eskaeran	22
	Barne-kudeaketa eta -kontrola.....	22
6.	Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragitea bermatzeko prozesuak eta tresnak	23
6.1.	Testuingurua.....	23
6.2.	Ingurumenean kalte nabarmenik eragin ez dela bermatzeko prozesua (DNSH)	23
7.	Planaren jarraipenerako eta ebaluaziorako jarraibideak	24
	Jarraipena eta ebaluazioa.....	24
	Prozedurak eguneratzea.....	24
	Eguneratzeak edo aldaketak jakinaraztea eta ezagutaraztea.....	24
8.	Proposatzen diren neurrien laburpen exekutiboa.....	25
9.	Eranskinak.....	28
9.1.	I. eranskina - Iruzuraren aurkako borrokaren adierazpen instituzionala	28
9.2.	II. eranskina - Arriskuaren ebaluazioa, inpaktua eta probabilitatea	29
9.3.	III. eranskina.- Etika- eta jokabide-kodea	39
9.4.	IV. eranskina - Adierazleen katalogoa (bandera gorriak)	40
9.5.	V. eranskina - Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA)	58
9.6.	VI. eranskina - Balizko interes-gatazka prebenitu, detektatu eta kudeatzeko dokumentua.....	60
9.7.	VII. eranskina.- Kudeaketa-aitorpena ordainketa-eskaeran.....	62
9.8.	VIII. eranskina.- Kalte Nabarmenik Ez Egiteko Printzipioaren Autoebaluazioa – DNSH	63
9.9.	IX. eranskina - Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenaren gutxieneko edukia.....	65
9.10.	X. eranskina - Interes-gatazkarik eza berresteko eredia	67
9.11.	XI. eranskina - Lehiakide askoko dirulaguntzak emateko prozeduretan, interes-gatazkaren arriskua aztertze hartuko diren eskaerak hautatzeko arauak.....	68
9.12.	Termino eta definizio nagusien glosarioa.	69
	Glosarioa	69
	Termino teknikoaren definizioa	69

BERRIKUSPEN-PROZEDURA

Kop.	Data	Berrikuspenaren deskribapena	Onarpenaren arduraduna
1	2022/12/22	Aplikazio-eremua.	Ekonomia eta Ogasuneko sailburua
2	2023/02/20	55/2023 Agindura egokitzea.	Ekonomia eta Ogasuneko sailburua
3	2024/01/12	Iruzurarekin, interes-gatazkarekin eta finantzaketa bikoitzarekin lotura duten prozesu batzuen berrikuspena.	Ekonomia eta Ogasuneko sailburua
4	2025/01/15	11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa.	Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua
5	2025/01/15	"Bandera gorriak egiaztatzeko zerrenda" eranskina KEBren 1/2024 zirkularrera egokitzea (or.: 40 eta 43).	Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua

1. Hitzaurrea

Agiri honetan jasota dago Eusko Jaurlaritzaren Neurrien Plana, zeintzuen bidez indartu, osatu edo doitu nahi baitira iruzurraren aurkako baldintzak eta interes-gatazkari, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei lotuta nahiz ingurumenean kalte nabarmenik ez eragitearen arloan eskatzen diren baldintzak. Horren bidez lortu nahi da Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren Europako funtsen bidez finantzatutako jarduerak kudeatzen dituzten erakunde guztiak Europako eta Espainiako araudiek eskatzen dituzten eskakizunetara egokitzea.

Batasuneko araudian ezarritakoaren arabera, estatu kideek, SEMaren esparruan funtsen onuradun edo mailegu-hartzaile diren aldetik (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 EB Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzekoa), Batasunaren finantza-interesak babesteko neurri egokiak hartuko dituzte, baita funts horiek, aipatu mekanismoak finantzatzen dituen neurriei dagokienez, Batasuneko eta kasuan kasuko estatuko zuzenbidearen arabera erabili daitezten bermatzeko ere; hain zuzen ere, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko. Orobat, kontrol-sistema eraginkor eta efiziente bat ezarri beharko dute, zeinaren bidez berreskuratu ahal izango baitira oker ordaindutako edo oker erabilitako funtsak. Halaber, printzipio horizontal hau ezartzen da: Mekanismoak ingurumenean kalte nabarmenik ez eragitearen printzipioari jarraitzen dioten neurriak baizik ez ditu babestuko.

Hori horrela, Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua onartu du (aurrerantzean, HFP/1030/2021 Agindua). Agindu horren bidez taxutzen da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP) kudeatzeko sistema, eta Batasuneko araudian SEEPa egikaritzako ezarritako betekizunen betetze koordinatua bermatzeko jarraibideak ezartzen dira. Betekizun horietako batzuk dira, batetik, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko mekanismoak indartzea, eta, bestetik, ingurumenean kalte nabarmenak egoteko arriskuaren analisisa (*Do No Significant Harm* DNSH), eta emaitzaren jarraipena eta egiaztapena egitea, hasierako ebaluazioarekiko.

HFP/1030/2021 Aginduak printzipio horiek garatzen ditu 5. eta 6. artikuluetan:

- 5. artikulua arabera, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean sartutako erreformak eta inbertsioak egikaritzeko neurrietako ezeinek ez die kalte nabarmenik eragingo ezarri diren sei ingurumen-helburuei.¹
- 6. artikulua arabera, SEEParen neurriak egikaritzen parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok iruzurraren aurkako neurrien plan bat izan beharko du, dagozkion funtsak dagozkion esparruan aplikatu beharreko arauen arabera erabili dituela bermatzeko, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez.

¹ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko 2020/852 (EB) Erregelamendua, inbertsio jasangarriak errazteko esparrua ezartzekoa eta 2019/2088 (EB) Erregelamendua aldatzekoa. Helburu hauek ditu: a) Klima-aldaketa apaltzea. b) Klima-aldaketara egokitzea. c) Ur- eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa. d) Ekonomia zirkularerako trantsizioa. e) Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola. f) Biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta lehengoratztea

Eusko Jaurlaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legearen V. kapituluan, eta Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamenak², Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketak eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-egikaritzeari, kudeaketari eta jarraipenari dagokienez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari loturiko funtsen kudeaketa arautzen dute. Legeak 33. artikuluan («Jarduketak eta proiektuak gauzatu izanaren jarraipena eta justifikazioa») hau xedatzen du: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketak eta proiektuak gauzatzeko eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko sailtako eta sektore publikoko entitateetako organoek, bat etorritik Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren araudi erregulatuarekin eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emandako jarraibideekin, behar den informazioa eman beharko dute mugarri eta helburuak zenbateraino bete diren jakin ahal izateko, alde batetik, eta, bestetik, jarduketak eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpena behar bezala justifikatu eta ziurtatu ahal izateko». Erabaki-proposamenak zortzigarren puntuan («SEEParen funtsen kudeaketa koordinatzea») xedatzen du Kohesio Politikaren eta Europako Funtsetako Zuzendaritzak beharrezkoak diren jarduerak bultzatuko dituela, estatu-agintaritzek, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa erregulatzen duen araudiarekin eta hura garatzeko xedapenekin bat etorritik, jarduteko jarraibide eta irizpide erkideak zehaztu ditzaten sektore publikoko erakunde betearazle eta organo kudeatzaile guztientzat. Modu subsidiarioan, zuzendaritza horrek jarduteko jarraibide eta irizpide erkide horiek garatu ahal izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde betearazle eta organo kudeatzaile guztientzat, agindutako azpiproiektuak, jarduketak, jarduerak eta zereginak gauzatzean nahitaez kontuan hartu beharreko printzipioak jorratzeko, adibidez, hauek: ingurumenean izan litezkeen eragin negatibo adierazgarrien arriskua aztertzea; iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea; estatu-laguntzen araubidearekin bateragarriak izatea eta finantzaketa bikoitza prebenitzea; eta komunikazio-jarduketekin lotutako betebeharrak.

Gainera, hizpide den plana egiteko, kontuan hartu da «Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko mekanismoak indartzeko orientabideak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema egituratzen duen irailaren 29ko HFP 1030/2021 Aginduaren 6. artikuluan aipatzen direnak» dokumentua. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Europar Funtzen Idazkaritza Nagusiak idatzi zuen, eta 2022ko urtarrilaren 24an argitaratu zen.

² Araua onarpen-prozesuan dago.

2. Planaren helburua eta aplikazio-eremua

2.1. Helburuak

Planak Euskal Autonomia Erkidegoko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean garatzen diren azpiproiektu eta jarduketekin lotutako lau helburu nagusiri erantzuten die:

- **Iruzuraren agerpena murriztea**, bai barnean bai kanpoan, iruzur-arrisku nagusiei helduz eta iruzurraren aurkako zikloaren funtsezko lau elementuak kontuan hartuz: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.
- **Interes-gatazka ekiditea**, parte hartzen duten eragile guztiak horren garrantziaz sensibilizatzen dituen sistema bat ezarriz eta dagozkion prebentzio-, detekzio- eta zuzenketa-neurriak ezarriz.
- **Europako finantzaketa bikoitzik ez dagoela ziurtatzea**, estatu-laguntzei buruzko araudia aplikatzen dela bermatuz eta, funtsen jatorria edozein dela ere, **gehiegizko finantzaketa publikoa ekidinez**.
- SEM funtsen bidez **ingurumenari kalte nabarmenik eragiten ez dioten ekimenak** bakarrik babestea.

2.2. Aplikazio-eremua

Plan hau Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoari aplikatuko zaio, bai eta Eusko Jaurlaritzaren bidez Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketa-funtsak jasotzen dituzten foru- eta toki-sektore publikoko administrazio eta erakundeei ere, salbu eta iruzurraren aurkako plan bat badute onartuta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana arautzen duen araudiaren arabera. Era berean, Plana zuzenean edo egokituta aplikatu ahal izango zaio bere borondatez hala erabakitzen duen edozein erakunde betearazle edo kudeatzaileari.

Kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegora adskribatutako entitate askotarikoen araubide juridiko eta instituzionalaren berezitasunak eta egikaritu ditzaketen proiektuen espezifikotasunak, azpiproiektuen eta jarduketuen organo kudeatzaile arduradunek beharrezko derizteten partikulartasunak ezarri ahal izango dituzte, Plan hau euren esparrura egokitzeko, betiere ekarpen horiek ez badira Planean ezarritako printzipioen aurkakoak.

Plana ezartzetik eratorritako neurriak aplikatzeko, funtsezkoa da ondo zehaztuta gelditzea erantzukizun-mailak, eta bat etortzea SEEParen dokumentuaren 4.6 artikularekin (Kontrola eta auditoretza), batez ere kontrolari dagokionez:

- **1. maila – Organo betearazlearen barne-kontrola:** SEMaren barruko jarduketa bat gauzatzearekin lotutako edozein administrazio-jardueraren lehen mailako eta oinarritzko kontrola da. Bere misioa da segurtasuna ematea lege-eskakizunak, eta mugarrak eta helburuak betetzeari dagokionez, eta finantza-kudeaketa ona bermatzea, administrazio-prozedura arruntak aplikatuz. Zehazki, jarraipena egitea SEEParen neurriek alderdi hauek betetzearen gainean: ezarritako ezagutza tematikoak; mugarrien eta helburuen betetzea; finantzaketa bikoitza, interes-gatazkaren azterketa; ustelkeriaren ikerketa; eta iruzurraren kontrola.

- **2. maila – Organo independente baten eskutiko barne-kontrola:** Administrazio jarduleak (kontu-hartzailtza nagusiak eta zerbitzu juridikoak; entitate publikoetako kontrol-organo baliokideak) ez diren barne-kontrolako organo independenteei agindutako kudeaketa-kontrola da. Organo horien jarduna independentea da gastua kudeatzen duten organoen jardunarekiko. Bere jarduketan artean daude, besteak beste, kontratazio-mahaietan parte hartzea; dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrien aurretiazko txostenak egitea; eta gastua betearazteko egintzen legezketasun-kontrola eta aldez aurreko fiskalizazioa gauzatzea, nahitaezkoa eta loteslea dena.
- **3. maila – Auditoriak eta *ex post* kontrolak:** Beste bien gainean jarduten duen finantza-kontrola da, eta erabateko autonomia du kontrolatu nahi den kudeaketa gauzatzen duen organo edo erakundearekiko. Estatuko Administrazioko Kontu-hartzailtza Nagusia da (IGAE: <https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/Paginas/inicio.aspx>) kontrolaren arduraduna, mekanismoaren kontrol-agintaritza da-eta abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 21. artikulua xedatutakoari jarraikiz (errege lege-dekretu horren bidez presako neurriak onartzen dira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta SEEPa egikaritzeko). Kontrol hori Kontrol Ekonomikoko Bulegoarekin lankidetzan gauzatuko da.

2.3. Jarduketa-esparrua

Ondorengo kapituluetan zehazten den jarduketa-esparruak ezartzen du zer tresna jarriko diren praktikan, aipatu planean adierazitako lau helburuak betetzeko. Askotan, hautatu diren tresnak jada ezarrita dauden beste batzuen osagarri dira, hala EAeko administrazio publikoen prozedura-jardun orokorrean, nola administrazio publiko horiek jasotzen dituzten egitura- eta kohesio-funtzen kudeaketa-jardun espezifikoan.

3. Iruzuraren eta ustelkeriaren aurkako tresnak eta prozesuak

3.1. Testuingurua

Planak iruzur-arrisku nagusiei heltzen die, eta horretarako aintzat hartzen ditu **iruzurraren aurkako zikloaren funtsezko lau elementuak**: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena, eta ziurtatzen du inplikaturako alderdi guztiek, barnekoek (administratzaileek, kudeatzaileek eta kontrolatzaileek) zein kanpokoek (onuradunek eta gizarteak, oro har) ondo ulertzen dituztela beren erantzukizunak, betebeharrak eta, hala badagokio, eskubideak, iruzurrari aurre egiteko planteamendu koordinatu batean oinarrituta.

Iruzur-arriskuaren ebaluazioa, prebentzio- eta detekzio-neurri egokiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak, foru-aldundiek eta udalek behar den unean modu koordinatuan ikertzea uztartuta, nabarmen murriztuko da iruzur-arriskua, eta, gainera, disuasio-metodo garrantzizkoa izango da.

3.2. Prebentzioko tresnak

IRUZURRAREN AURKA BORROKA EGITEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Iruzuraren aurkako neurrien plana aplikatuko zaien sektore publikoko entitateek **Iruzuraren aurka borroka egiteko adierazpen instituzionala** sinatu eta **beren webgune instituzionaletan argitaratu beharko dute**. Adierazpen horretan, argi eta irmo adieraziko dute iruzurrari aurka egiteko estandar etiko gorenak lortzea hitzematzen dutela.

Agiri honen **I. eranskinean, iruzurraren aurkako adierazpen instituzionalaren** eredu bat ageri da, ukitutako erakundeek neurria betetzea errazteko.

IRUZURRAREN AURKAKO KONPROMISOA LAGUNTZEN JAKINARAZPENETAN

Laguntzen azken onuradunek berariaz adierazi beharko dute Europako, Espainiako eta EAeko araudian ezarritako iruzurraren aurkako neurri guztiak betetzeko konpromisoa, baita Planean jasotakoak ere. Konpromisoa jakinarazpenean eta laguntzen onarpen-agirian formalizatuko da, adjudikaziodunen sinadurarekin batera.

Kontratazioa denean, nahitaezkoa izango da Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB) aurkeztea.

UNITATE, ZERBITZU EDO ORGANO ARDURADUNA

Plan hau aplikatuko zaien entitateek unitate, zerbitzu edo organo bat izendatuko dute, eta horixe arduratuko da agiri honetan jasotako xedapenak betetzeaz, iruzurraren ebaluazioa egiteaz, irits litezkeen salaketak aztertzeaz, balizko iruzur edo ustelkeria kasuak ebaluatzeaz eta, hala dagokionean, kasuan kasuko entitateei kasu horiek jakinarazteaz zein zuzenketa-neurriak proposatzeaz.

INPAKTUAREN HASIERAKO EBALUAZIOA ETA ARRISKU-PROBABILITATEA

Iruzur-arriskuaren ebaluazioaren helburu nagusia da Plan hau aplikatuko zaien entitateei probabilitatearen autoebaluazioa eta Europar Batasunaren finantza-interesen kaltetan gerta

daitezkeen iruzur-arrisku jakin batzuk gauzatzearen edo iruzur-egoera ohikoenak gertatzearen inpaktuaren ebaluazioa erraztea. Halaber, helburu du ezar ditzatela kontrol aringarriak, kasuan kasuko entitateak, bere eskumenak egikaritzean jada ezarrita dituen kontrolak aplikatu arren, egon litezkeen arriskuak murrizteko.

Arrisku-ebaluazio proaktibo, egituratu eta espezifikoa da. Organo kudeatzaile bakoitzak egin beharko du, eta prozesuan iruzurra jasateko aukera gehien dituzten alderdiak identifikatzeko balioko du, baita horiek kontrolatzeko eta hautemandako arrisku mailaren arabera beharrezkoak eta proportzionatuak diren neurriak hartzeko ere.

Iruzur-arriskuen autoebaluazioa autoebaluazio-prozesu baten bidez gauzatuko da.

Autoebaluazio-prozesua

Iruzur-arriskuaren autoebaluazioa egin aurretik, HFP/1030/2021 Aginduko autoebaluazioaren eta arriskuaren testa egingo da. Testa agiri honen **II. eranskinean** dago jasota.

Iruzur-arriskuen autoebaluazioa irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren arabera egingo da. Horretarako, Espainiako Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzuaren *Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzean iruzurraren aurkako neurriak aplikatzeko gidan* proposatzen den autoebaluazio-tresna erabiliko da³.

Tresna horrekin, batetik, ondoren zehazten diren kudeaketa-prozesuetan izan litezkeen arrisku espezifikoa identifikatu nahi dira; izan ere, entitateak balizko iruzur-jarduketan inpaktu-probabilitatea maila onargarrietara murrizteko helburuarekin jada aplikatzen dituen kontrolez gain, kontrol gehigarriak ezarri beharko lirateke, autoebaluazioaren arabera. Bestetik, neurri eraginkor eta proportzionatuak hautatu nahi dira, hautemandako iruzur-arriskuak murrizteko:

- Onuradunak hautatzea.
- Finantzatutako eragiketak gauzatzea eta egiaztatzea.
- Kontratuak/dirulaguntzak adjudikatzea.
- Egiaztatzea eta ordaintzea.

Arriskuak identifikatzeko, lan kolektibo eta iraunkorra egingo da (aurretiazko esperientzia, arriskuen inbentarioa), arriskua deskribatu, eta hauek zehaztuta: izaera orokorrekoa edo espezifikokoa den, zein den eragindako arloa/prozesua, nor egon daitezkeen tartean eta kolusio-arriskua barnekoa edo kanpoko den.

Diziplina anitzeko ebaluatzaile talde batek egin eta kudeatuko du autoebaluazioa. Jaurlaritzaren sailtako eta erantzukizun-maila desberdinetako kideek hartuko dute parte. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Iruzuraren aurkako Unitateko kideek iruzur-arriskuaren autoebaluazio-ereduak osatuko dituzte. Talde hori osatuko dute SEMaren kontrol-teknikariak (Jaurlaritzaren sailtakoak), EAEko sektore publikoaren ordezkariak eta Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritzaren ordezkari batek. Iruzuraren aurkako unitateak ebaluazioa egin

³<https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/Documents/20220224%20Gu%C3%ADa%20Medidas%20Antifraude.pdf>

ondoren, emaitza igorriko dio SEMaren ebaluazio eta jarraipenerako Eusko Jaurlaritzaren Sailarteko Batzordeari. Batzorde horren kide dira sailak, Aurrekontu Zuzendaritza, Funtzio Publikoko Zuzendaritza, Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza, Ekonomiako eta Europako Funtsetako Sailburuordetza eta Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritza. Sailarteko Batzordeak iruzurraren aurkako unitateak egindako ebaluazioa aztertuko du, eta, hala badagokio, iruzur-arriskuaren autoebaluazio-ereduak onartuko ditu. Ereduak onartuta, sailek eredu horiek egoki beharko dituzte euren prozedura eta kontroletara, eta organo kudeatzailearen arduradunak sinatu beharko ditu.

Iruzur-arriskuaren autoebaluazioa funtsezko urrats metodologiko hauetan oinarrituko da:

1. Mota jakin bateko iruzurra gertatzeko arriskuaren zenbatespen kuantitatiboa egitea, probabilitatearen eta inpaktuaren (arrisku gordina) balorazioan oinarrituta.
2. Arrisku gordina arintzeko abian dauden kontrolen eraginkortasuna baloratzea.
3. Arrisku garbia baloratzea, abian diren kontrolen eraginkortasuna eta eragina kontuan hartu ondoren, hau da, egoera ebaluazioaren unean den bezala (hondar-arriskua).
4. Planifikatzen diren kontrol aringarriek arrisku garbiaren edo hondar-arriskuaren gainean izan dezaketen eragina baloratzea.
5. Xede-arriskua zenbatetzea, hau da, kontrol eraginkorrak abian jarri ondoren kudeaketa-agintaritzak onargarritzat jotzen duen arrisku maila.

Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6.5.c) artikulua araberan, iruzur-arriskuaren autoebaluazioa aldi berean egin eta berrikusi behar da, bi urtean behin edo urtean behin, hautemandako iruzur-arriskuaren arabera eta, nolatan ere, autoebaluazio hori egin behar da iruzur-kasuren bat detektatu denean edo kudeaketa-prozeduretan edo horiek gauzatzen dituzten langileetan aldaketa nabarmenak daudenean.

Identifikatutako arrisku maila oso txikia bada eta aurreko urtean iruzur-kasurik hauteman ez bada, autoebaluazioa bi urtean behin soilik berrikusiko da.

Agindu horrek berak, iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko neurrien artean, barnean hartzen du kudeatutako neurri guztietarako arriskua ebaluatzeko mekanismo egokiak ezartzea, horren ebidentzia utzita, prozesuaren barruan iruzurra jasateko arrisku handiena duten alderdiak bilatzeko eta bereziki kontrolatzeko, honako oinarri honen gainean:

- a. Iruzurra jasateko arrisku handiena duten neurriak identifikatzea, hala nola intentsitate handikoak, aurrekontu handikoak, eskatzaileak justifikatu beharreko baldintza asko dituztenak, kontrol konplexuak dituztenak, etab.
- b. Egon daitezkeen interes-gatazkak identifikatzea.
- c. Barne-kontrolerako sistemaren aurretiazko lanen emaitzak (ikus Planaren 3.3 artikulua).
- d. Europako Batzordearen edo, hala badagokio, Europako Kontu Auzitegiaren ikuskaritzaren emaitzak.

Nolanahi ere, kudeatzaile guztientzako komuna den barne-kontrolako prozesuak araudiari eta Espainiako nahiz Europako agintaritzek horri buruz eta berariaz SEEPari buruz emandako gomendioei jarraikiz ezarriko dira.

ETIKA ETA JOKABIDE KODEA

Euskal Autonomia Erkidegoak Erakunde Harremanetarako sailburuordearen azaroaren 22ko 67/2016 Ebazpena onartu zuen, zeinaren bitartez xedatzen baita argitara eman behar dela Gobernu Kontseiluak hartutako erabakia, *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta haren sektore publikoko kargu publikodunen Etika eta Jokabide Kodearen testu bategina* onartzen duena eta kode horretan xedapen berriak sartzen dituena. Kodeari lotutako funtzio eta eskumenak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren mendeko Etika Publikorako Batzordeari dagozkio.

EAEko hiru lurralde historikoetako foru aldundiek kode etikoak dituzte: 477/2015 Erabakia, irailaren 3koa, Diputatuen Kontseiluarena, Arabako lurralde historikoko sektore publikoko kargu publikoen eta ordezkarien Etika eta Gobernu Onaren Kodea onartzen duena. Bizkaiko Foru Aldundiaren Etika eta Jokabide Kodea, Europako funtsen kudeaketan arriskuak kudeatzeari dagokionez. Gipuzkoako foru-enplegu publikoaren etikaren eta kudeaketa onaren kodea.

Plan hau aplikatuko zaien entitateek euren zerbitzura diharduten langileen kode etikoa egin beharko dute, eginda ez badute. Kode horri atxiki beharko zaizkio SEEParen egikaritzean parte hartzen duten entitateko pertsona guztiak, kargu publikoa eduki edo ez, entitate betearazlea den aldetik.

Etika eta Jokabide Kodearen helburua da iruzurgileei iruzur-asmoa kentzea eta agintariek nahiz inplikaturako langileek iruzurraren aurka denik eta konpromisorik handiena hartzea, hala nola zintzotasuna, objektibotasuna, kontu-ematea eta onradutasuna sustatzea.

Agiri honen **III. eranskinean** ageri da ezarri nahi den **etika- eta jokabide-kode orok izan beharreko gutxieneko betekizunak** zehazten dituen eredia. Egin beharreko etika- eta jokabide-kodearen oinarri izango dira EAEko administrazioetako kargudun publikoentzat indarrean diren etika-kodeak, eta Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urraren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak nahiz Euskal Funtzio Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak zerbitzari publikoei eskatzen dizkieten balio etikoak.

PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak administrazio publiko guztien esku jarriko ditu iruzurraren aurka borrokatzeko politikari buruzko prestakuntza-jarduerak, teorikoak zein praktikoak, eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzaturako azpiproiektuak eta jarduketak kudeatzen eta gauzatzen parte hartzen duten langileek jarduera horietan parte har dezaten sustatuko da.

Prestakuntza-ekintzak hierarkia-maila guztietara bideratu behar dira, eta bilerak, mintegiak, lantaldeak eta abar barne hartuko dituzte. Honako hauek izango dituzte ardatz: arriskuen identifikazioa eta ebaluazioa, kontrol espezifikoak ezartzea, iruzurrik detektatzen denerako jardunbidea, erreferentziatzeko kasu praktikoak, etab.

3.3. Detekzio-tresnak

BARNE-KONTROLEKO SISTEMA

Barne-kontrol sistematikoak egingo dituzte SEM funtsen administrazioan inplikaturako organo kudeatzaile eta betearazleek, edozein anomalia edo iruzur-jarduera detektatzeko.

Kontrolak egin, eta, arrisku maila dela-eta beharrezkotzat jotzen den kasuetan, txostenak egingo dira, eta horietan islatuko dira aldi jakin batean hautemandako irregulartasun, iruzur susmo eta iruzur guztiak, kontrol-agintaritzak ezarritakoaren arabera. Txostenak egiteko, egin diren eta aribidean dauden arriskuen autoebaluazioetan lortutako emaitzak hartuko dira oinarri.

Barne-kontrolerako organo independenteek (Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, kontu-hartzaileak eta aholkularitza juridikoak), *ex ante* kontrolerako eta kontratazio-mahaietan parte hartzeko eginkizunetan, antzemandako gorabeheren berri emango diete organo kudeatzaileei eta kide anitzeko organoari, eta, hala badagokio, Kontrol Agintaritzari. (II. mailako kontrola).

KOMUNIKAZIO-SISTEMA

Plan hau aplikatuko zaien erakundeek barne zein kanpoko kanaletan oinarritutako komunikazio-sistema bat ezarriko dute, iruzur susmoen berri emateko jakinarazpen-mekanismo egoki eta argiak baliatuta.

Ad hoc ezarriko den komunikazio-sistemak, gutxienez, ekintza hauek barne hartuko ditu:

- IGAEn kanal publikoaren berri ematea inplikaturako eragileei eta herritarrei (<https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/Paginas/ComunicacionSNCA.aspx>), horren bidez salatu ditzaten iruzur-jokabideak. Edonork parte hartu dezake kanal horretan, baita neurrian esku hartzen duen pertsona fisiko edo juridiko orok ere.
- Inplikaturako eragile guztiei eta, oro har, herritarrei ezagutaraztea kasuan kasuko gardentasun-atariak; esaterako, Irekia, Eusko Jaurlaritzarena, eta foru-aldundien eta udalen webguneak.
- Inplikaturako eragile guztiei eta, oro har, herritarrei ezagutaraztea iradokizun, kexa edo salaketa oro modu pribatuan adierazteko bide arautuak. Eusko Jaurlaritzaren kasua, edonork jarri daiteke harremanetan Jaurlaritzarekin eta Etika Batzordearekin (<https://www.irekia.euskadi.eus/eu/departments/78/proposals>). Halaber, foru- eta toki-erakundeek euren webguneetan dauzkate ezarrita edonolako kexak eta iradokizunak egiteko prozedurak.
- Inplikaturako eragile guztiei eta, oro har, herritarrei ezagutaraztea Arartekoa erakundearen betekizun nagusia; alegia, herritarrak artatzea, Administrazioaren jarduketa desegokien edo legez kanpoko inguruko kexei, eskaerei edo kontsultei dagokienez, baita kexa horiek izapidetzea ere. Horretarako, prozedura jakin bat erabiltzen da, eta eragindako administrazioari jarduketari buruzko azalpenak eskatzen zaizkio. Kexa batean adierazitako jarduketa ordenamendu juridikoaren arabera oker dagoela ebazten bada, Arartekoak ebazpen bat emango du, eta, gomendio baten bidez, administrazio arduradunari eskatuko dio zuzen dezala jarduketa okerra.

- Postontzi espezifikoko bat ezartzea, Plan hau aplikatuko zaien entitate betearazleen zerbitzura dauden langileen salaketak jasotzeko, Mekanismoari lotuta egindako jarduketak direla eta. Berariazko protokolo baten bitartez tratatuko dira salaketak, salatzaileen identitatea babestua. Egindako salaketak bereziki kualifikatutako eta eginkizun horretara bideratutako langileek ikertuko dituzte.
- Agintaritzei eta Plan hau aplikatuko zaien entitateen zerbitzura dauden langileei komunikazio-ereduen bidez jakinaraztea hala iruzur-sumoak nola iruzurrarekiko kalteberatasuna handitu dezaketen ahulguneak.
- Modu koordinatu eta antolatuan jakinaraztea iruzurraren detekzioan inplikaturik dauden gainerako eragileei: zerbitzu juridikoak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoa edo Plan hau aplikatu zaien entitate guztietako organo eskudunak, Estatuko Administrazio Orokorrean ikertzeko ardura duten entitateak eta ustelkeriaren aurkako borrokaren ardura duten agintaritzak.
- Gertatutakoak eta hartutako neurriak ahalik eta lasterren jakinaraztea erakunde erabakitzaileari edo betearazleari, kasuaren arabera, eta hark SEMaren ardura duen agintaritzari jakinaraztea.
- Informazioa modu koordinatuan eta antolatuan ematea azpiproiektuak edo jarduketak egiten inplikaturik agintariei eta iruzurrezko jardunaren eraginpean egon daitezkeen guztiei.
- Iruzur-kasu horiek jasotzen dituen kontrol-txostenaren laburpena eta erakunde betearazlearen kudeaketa-txostena zabaltzea.

ADIERAZLEEN KATALOGOA (BANDERA GORRIAK)

«Bandera gorriak» izeneko erreferentziako adierazle multzo baten jarraipena egitea, iruzurra dagoen zehazteko. Adierazle horiek ohartarazten dute iruzurrezko jarduketa bat gerta daitekeela, eta berehalako erreakzioa behar dela ekintza bat beharrezkoa den egiaztatzeko.

Europako Batzordeak katalogo hori egiteko informazioa eman die estatu kideei. Katalogoaren berri eman behar zaie iruzur-arriskuak detektatzeko egoeran dauden langile guztiei. Zehazki, onuradunek jarduketak gainbegiratzea eginkizun duten pertsonak (esaterako, agiriak egiaztatzen dituztenek eta lekuan bertan ikuskapenak edo bestelako jarraipen-bisitak egiten dituztenek) adierazle horiek ezagutu behar dituzte.

Kudeaketaren kontrolaren funtzioa betetzean, SEEPeko jarduketak egikaritzeko izapidetzen diren prozeduretan egiaztatuta geratu beharko da, agiri bidez (egiaztapen-zerrenda betea), dokumentu honetan zehaztutako balizko bandera gorrien ikuskapena. Horretarako, organo kudeatzaileak egiaztapen-zerrenda bete behar du SEEPak finantzaturiko jarduketa eta azpiproiektu bakoitzerako.

Dokumentu honen **IV. eranskinean** ageri da **«bandera gorriak» izeneko adierazleen zerrenda, eta horiek egiaztatzeko zerrenda**, iruzurra dagoela egiaztatzeko.

FALTSUTUTAKO DOKUMENTUAK DETEKTATZEA

Faltsututako dokumentuak⁴ iruzur-kasu partikularra dira, aparte landu beharrekoa.

Horiek detektatu eta zuzentzeko, esku hartzen duten administrazioek barne-kontrolak egingo dituzte, kontuan hartuta, batetik, IV. eranskineko adierazleen katalogoa (bandera gorriak) eta, bestetik, merkataritza-erregistroen, eta estatu-erakundeen zein EBren datu-baseak, enplegatuen espedienteak (datuak babesteko arauak kontuan hartuta) eta datu-prospekziarako tresnak (*data-mining*).

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateek, foru-aldundiek eta udalek Espainiako Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzuari (SNCA) eta, hala dagokionean, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari (OLAF) jakinaraziko dizkiote faltsututako dokumentuen auziak. Egitateak zigortzekoak badira, dagokien agintaritzen aurrean salatuko da egoera, kasuan kasuko zerbitzu juridikoen txosten baten bidez, kasua instantzia judizialetara igortzeko erabakia babesteko.

EGIAZTAPENA ETA DATUEN GURUTZAKETA

Datuen babesari buruzko legediaren mugen barruan, arriskuak ebaluatzeko orduan, erakunde betearazleek datuak lortzeko, biltegitratzeko eta aztertzeko prozesuak optimizatzeko tresnak erabiltzea sustatuko dute, datuak sektoreko beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin gurutzatzeko eta arrisku handiko egoerak detektatzeko, baita funtsak eman aurretik ere.

Horretarako, agintaritzek eta Plan hau aplikatuko zaien entitateen zerbitzura dauden langileek barneko tresnak erabiliko dituzte —EAEko Kontratazio Publikoaren Plataforma, kasu, baita dirulaguntzen datu-baseak eta datu-prospekzioko tresnak ere (*data mining*)—, esparrurik gatazkatsuenetan funtsen arloko iruzur-arriskua alerta-adierazleen bidez identifikatu eta ebaluatzeko (esaterako, kontratazio publikoan), eta iruzurraren aurkako neurriak diseinatzeko.

3.4. Zuzenketa- eta jazarpen-prozesuak

Ustezko iruzur-kasu bat detektatu eta aurreko puntuko komunikazio-sisteman ezarritako prozeduren arabera jakinarazi ondoren (Europako Batzordearen betekizunekin eta barne-baldintzekin bat etorritik), organo kudeatzaileek baloratuko dute ikerketa bat abiarazi behar den ala ez, eta bidegabe jasotako zenbatekoak berreskuratzeko eta dagokion akzio penala gauzatzeko ekintzak abiarazi behar diren ala ez.

HFP 1030/2021 Aginduaren 6.6 artikuluan zehaztutakoaren arabera, balizko iruzur edo susmo funtsatu bat detektatu ondoren, Plan hau aplikatuko zaien entitateek (zehazki, organo kudeatzaileek) nahitaezko urrats hauek egin beharko dituzte:

- **Iruzuraren ebaluazioa eta sailkapena.** Plan hau aplikatuko zaien sektore publikoko entitate betearazleek iruzurraren eragina ebaluatuko dute, eta, horretarako, neurrian

⁴ Dokumentuak faltsutzeari buruzko Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren (OLAF) gida praktikoaren arabera, faltsututako dokumentu bat da egiazkoa balitz bezala erabiltzeko asmoz aldatu den dokumentua. Bestelakotzea honelako izan liteke:

- Fisikoa: dokumentu bati aldaketa fisikoak egitea; esaterako, elementu edo aipamen batzuk ezabatzea, dokumentua aldatzen duen informazioa eskuz idaztea, etab.
- Intelektuala: dokumentuaren edukia ez dator bat errealitatearekin; esaterako, emandako zerbitzuen deskribapena ez da egiazkoa, txosten baten edukia gezurrezkoa da, bertaratuen zerrrendako sinadurak faltsuak izatea, etab.

parte hartzen dutenek emandako ebaluazio-txostenetan oinarrituko dira, besteak beste.

- **Jarduera berrikustea, etetea eta/edo amaitutzat ematea.** Balizko iruzur bat edo horren susmo arrazoitua hautemanaz gero, berehala etengo da Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatutako azpiroiectua edo jarduketa.

Horretarako, iruzurrezko jarduketaren eraginpean egon ahal izan diren azpiroiectu edo ekintza-ildo guztiak berrikusi beharko dira, baita horiekin loturik esku-hartzaileek emandako dokumentazio osoa ere. Hala, iruzurrak ukitutakoek emandakoa kenduko da, SEM funtsen finantzaketa jaso badute edo jasotzeko zain badaude.

- **Komunikazio-sistema.** Erakunde betearazleek konpromisoa hartzen dute ahalik eta eperik laburrenean jakinaraziko dutela hautemandako iruzurra edo iruzur-susmo funtsatua bai erakunde interesdunei bai inplikaturako erakundeei. Hauek dira erakunde interesdunak: Espainiako Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzua (SNCA), Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoa (OLAF), fiskaltza eta auzitegi eskudunak. Erakunde inplikaturak, aldiz, hauek: entitate betearazlea eta kudeaketa-organoak.

Komunikazio-sistemak, hartu beharreko zuzenketa-neurriei dagokienez, hauek barne hartzen ditu:

- ✓ Gertakariak eta hartutako neurrien berri ematea jarduketaren exekuzioa agindu duen erakundeari. Entitate betearazleak auziaren berri emango dio entitate erabakitzaileari, eta horrek agintaritzaren arduradunari jakinaraziko dio. Agintaritzaren arduradunak egoki deritzon informazio gehigarria eskatu ahal izango du jarraipena egiteko eta kontrol-agintaritzari jakinarazteko.
 - ✓ Gertakariak salatzea agintaritzaren eskudunei, hala dagokionean, baita SNCari ere, balorazioa egin, eta, beharrezkoa bada, OLAFi jakinarazi diezaion.
 - ✓ Informazio erreserbatua abian jarriko da, erantzukizunaren espedientea irekitzeko edo diziiplina-espedienteari hasiera emateko.
 - ✓ Gertakariak fiskaltzaren eta auzitegi eskudunen aurrean salatzea, zerbitzu juridikoen txosten juridikoaren bidez kasua instantzia judizialetera igortzeko erabakia babestuta.
- **Espedienteak berrikustea.** Agintaritzaren eskudunek ikerketa amaitzen dutenean, edo ikerketa hori kasuan kasuko agintaritzari jarraipena egiteko helarazten dietenean, Plana aplikatzen zaien sektore publikoko erakundeek zehatz-mehatz berrikusiko dituzte balizko iruzurrarekin edo frogatuarekin zerikusia duen edozein prozesu edo prozedura, eragiketa horretan eta/edo antzeko izaera ekonomikoa dutenetan sartutako espediente guztiak, bai eta barne-kontrolako sistemak ere. Gainera, iruzurraren aurkako neurriak loturiko autoebaluazio-testaren emaitzaren txostenak berrikusiko dira (III. eranskina).

Berrikuspena objektiboa eta autokritikoa izan behar da, eta ikerketaren arduraren duten agintaritzekin eta agintaritzaren judizialekin lankidetzan egina, eta legea betez egina.

Berrikuspenaren emaitza dela eta, hautemandako aholkugonei eta ikasitako ikasgaiei

lotutako ondorioak azalduko dira, baita mekanismo egokiak, arduratsuak eta epe zorrotzak ezartzeko ekintza argiei lotutako ondorioak ere.

- **Jasotako zenbatekoak berreskuratzea (bidegabeko ordainketak), kofinantzaketa kentzea eta ekintza penala.** Erakunde betearazleek eta agintaritza eskudunek onuradunek bidegabeki jasotako zenbatekoak berreskuratzeko eskatuko dute, baita atzemandako intzidentzia duten espediente guztietatik Batasunaren kofinantzaketa kentzeko ere.

Horretarako, prozedura zorrotz batzuk sortuko dituzte, iruzurrezko eran erabili diren EBren funtsak berreskuratzearen jarraipenerako. Prozesu horiek argiak izan behar dira, baita prozedura zibilari edo penalari jarraituko zaionean ere.

Bestalde, iruzurgileei iruzur-asmoa burutik kentzeko, ikusgarritasuna emango zaie zehapen-jarduketei eta zehapenak ezarriko diren mezua indartuko da.

4. Interes-gatazkak saihesteko prozesuak eta tresnak

4.1. Testuingurua

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduak, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoak (EBko Finantza Erregelamendua), 61. artikuluan ezartzen du interes-gatazka dagoela (IG), baldin eta finantza-agenteei eta aurrekontua zuzenean, zeharka eta modu partekatuan betearazten parte hartzen duten gainerako pertsonak, bai eta kudeaketan parte hartzen dutenek ere, prestatze-egintzak, auditoretza edo kontrola barne, arriskuan jartzen badute beren eginkizunak inpartzialki eta objektiboki betetzea, arrazoi familiarrengatik, afektiboengatik, kidesun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoiengatik.

Erregelamendu horrek, HFP 1030/2021 Aginduaren III.C eranskinean aipatzen den bezala, honako hau ezartzen du:

- EBko erakunde guztietako partida administratibo eta operatibo guztiei eta kudeaketa-metodo guztiei aplikatu dakieke.
- Edozein motatako interes pertsonalak estaltzen ditu, zuzenekoak edo zeharkakoak.
- Interes-gatazka «izan daitekeen» edozein egoeraren aurrean jardun behar da.
- Estatu-agintaritzek, edozein mailatakoak direla ere, interes-gatazka potentzialak ekidin eta/edo kudeatu behar dituzte.
- Ondorio horietarako, honako hauek izan daitezke interes-gatazkan inplikaturik egon daitezkeen eragileak:
 - Kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten enplegatu publikoak eta beste agente batzuk, baldin eta eginkizun horietako bat/batzuk eskuordetu bazai(zki)e.
 - Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratatistak, haien jarduketak funtsekin finantzatzen badira eta beraien interesen alde jardun badezakete, baina EBren finantza-interesen aurka, interes-gatazka baten esparruan.

Iruzuraren kontrolaren kasuan bezala, Planak modu holistikoa hiltzen dio interes-gatazkari, ziklo osoa kontuan hartuta, prebentziotik hasi eta zuzendu eta arau-hausleak jazartzeraino.

Urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko prozeduretako interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa, indarrean jartzen denean, Plan hau aplikatu behar zaien erakundeek bete beharko dute SEEParekin finantzaturako kontratazio- eta dirulaguntza-prozesuetako interes-gatazka kontrolatzeko ezarritako prozedura espezifikoa.

4.2. Prebentzio- eta detekzio-tresnak

Europako Batzordearen jarraibideen arabera ([https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52021XC0409\(01\)&from=ES](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52021XC0409(01)&from=ES)), honako tresna hauek aurreikusten dira interes-gatazkak prebenitzeko eta detektatzeko:

TARTEAN DIREN ALDERDIEI INTERES-GATAZKEN MODALITATEEN BERRI EMATEA.

Interes-gatazkan inplikaturik egon daitezkeen pertsonen interes-gatazka zer den, gatazka horren modalitateak, inplikazioak eta saihesteko modua jakinaraziko zaizkiela bermatzea. Honako hauek egon daitezke inplikaturik:

- Kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten enplegatu publikoak eta beste agente batzuk, baldin eta eginkizun horietako bat/batzuk eskuordetu bazai(zki)e.
- Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak, haien jarduketak funtsekin finantzatzen badira eta beraien interesen alde jardun badezakete, baina EBren finantza-interesen aurka, interes-gatazka baten esparruan.

Interes-gatazka eragingo lukeen egoerari erreparaturik, honako hauek bereiz daitezke:

- **Itxurazko interes-gatazka:** enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuek arriskuan jar dezaketenean bere eginkizunak edo betebeharrak objektiboki betetzea, baina, azkenean, ez dagoenean lotura identifikagarri eta indibidualik pertsonaren jokabidearen, jarreraren edo harremanen alderdi zehatzekin (edo alderdi horietan eraginik ez duenean).
- **Balizko interes-gatazka:** enplegatu publiko edo onuradun batek halako interes pribatuak dituztenean sortzen da, baldin eta interes horiek interes-gatazka sor badezakete, etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar izanez gero.
- **Benetako interes-gatazka:** enplegatu publiko baten betebeharrak publikoaren eta interes pribatuen arteko gatazka dakar, edo enplegatu publikoak interes pertsonalak ditu, eta interes horiek eragin bidegabea izan dezakete bere betebeharrak eta erantzukizun ofizialetan. Onuradun baten kasuan, gatazka bat sortuko litzateke funtsen laguntza eskatzean hartutako betebeharrak eta interes pribatuen artean, bidegabe eragin baitezakete betebeharrak horiek betetzean.

INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA (IGEA)

Plan hau aplikatu behar zaien sektore publikoko erakundeen zerbitzura dauden eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzaturiko azpiproiektuen eta jardueren kudeaketan eta betearazpenean esku hartzen duten agintari eta langile guztiek interes-gatazkarik ez dagoela adierazten duen adierazpen bat beteko dute.

Zehazki, eta HFP 1030/2021 Aginduaren III.C eranskinean zehazten den bezala, adierazpen hau sinatu beharko dute dirulaguntza emateko/kontratatzeko organoaren arduradunak, lizitazioen/oinarrien agiriak eta/edo deialdiak idazten dituzten langileek, eskaerak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzen dituzten adituek,

eskaerak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzeko batzordeetako kideek eta prozedurako gainerako kide anitzeko organoek. Kontratazio txikien, hitzarmenen eta bitarteko propioei egindako enkarguen kasuan, espedientea proposatu edo bultzatu duen unitatearen titularrak eta espedientearen kudeaketan edo betearazpenean parte hartzen duten guztiek beteko dute adierazpena.

Gainera, IGEA beteta aurkezteko eskatuko zaie onuradunei/kontratistei/azpikontratistei, baldin eta, laguntza emateko baldintzen barruan, balizko interes-gatazka duten jarduerak egin behar badituzte.

IGEA, adierazpen-egileak hau adierazi beharko du:

- ✓ Jakin badakite parte hartzen duen administrazio-prozedurari lotutako itxurazko interes-gatazka, balizkoa edo benetakoa dagoena.
- ✓ Luze gabe itxurazko interes-gatazka, balizko gatazka edo benetako bat eragin dezakeen inguruabarrik badago.
- ✓ Edozein balizko interes-gatazka berehala deklaratzeko konpromisoa hartzen duela, inguruabarren batek ondorio hori ekar dezakeela antzemanaz gero.

Dokumentu honen **V. eranskinean**, Interes-gatazkarik ezaren adierazpenaren (IGEA) eredu bat erantsi da.

[BALIZKO INTERES-GATAZKEN PREBENTZIO, DETEKZIO ETA KUDEAKETARI BURUZKO DOKUMENTUA](#)

Neurrien Plan honen **VI. eranskin** gisa, balizko interes-gatazkaren prebentzioari, detekzioari eta kudeaketari buruzko dokumentu bat gehitu da. Bertan, langileei informazioa ematen zaie interes-gatazken modalitatei buruz, gatazka hori saihesteko moduei buruz eta gai horren inguruko indarreko araudiari buruz, eta interes-gatazkarik hautemanaz gero jarraitu beharreko prozedura jasotzen da. Dokumentu hori Plan hau aplikatuko zaien erakundeen intranetean argitaratuko da, eta hori erakundeko langile guztiei jakinaraziko zaie posta elektronikoz.

Urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan araututako prozeduraren arabera, agindu horren 3. artikuluan aipatutako langileek IGEDA espezifiko bat sinatu beharko dute (Plan honen X. eranskin gisa jaso da), baita HFP/1030/2021 Aginduaren IGEA ere, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin finantzatutako dirulaguntzak eta kontratuak prestatzeko eta izapidetzeko prozesuan parte-hartzaile gisa duten inpartzialtasuna bermatzeko.

[EGIAZTAPENA ETA DATUEN GURUTZAKETA](#)

Datu pertsonalak babesteko arauak kontuan hartuta, entitate betearazleek honako hauek erabiliko dituzte: merkataritza-erregistroetako, estatu-erakundeetako eta EBko datu-baseak, administrazio- eta langile-espedienteak eta datuen prospekzio-tresnak (*data mining*).

Kontratu eta dirulaguntzei aplikatzekoa den urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren 4. artikuluan zehazten diren eragiketen arduradunek datuak gurutzatu beharko dituzte MINERVA *data mining*-eko aplikazioarekin, agindu horren 4. artikulutik 7. artikulura xedatutakoari jarraikiz.

Ondorio horietarako, Plan honen X. eranskina (interes-gatazkarik ez dagoela berresteko eredua) eta XI. eranskina (lehiakide askoko dirulaguntzak emateko prozeduren kasuan interes-gatazkaren arriskua aztertze eskaerak hautatzeko arauak) gehitu dira.

ADIERAZLEEN KATALOGOA (BANDERA GORRIAK)

«Bandera gorriak» izeneko erreferentziako adierazle multzo baten jarraipena egitea, iruzurra dagoen zehazteko. Adierazle horiek ohartarazten dute interes-gatazka bat gerta daitekeela, eta berehalako erreakzioa behar dela ekintza bat beharrezkoa den egiaztatzeko.

Iruzurra detektatzeko erabilitako katalogoak berak (IV. eranskina) interes-gatazken modalitateak hautemateko adierazleak ere baditu. Adierazle horiek bat datoz OLAFek arlo horretan duen gida praktikoarekin.

Etengabeko eta aldizkako ebaluazioa

Adierazleetan oinarrituta, etengabeko monitorizazioa egingo da egon daitezkeen interes-gatazkek ekiditeko eta goiz detektatzeko.

- Langileek galdetegiak beteko dituzte aldiaren behin, interes-gatazka sortzeko aukeraren aurrean alertan jarraitzen den ebaluatzen.
- Erabakiak hartzen parte hartzen duten eta, beraz, interes-gatazkan sar daitezkeen langileek beteko dituzte kontrol-zerrendak.

4.3. Zuzenketa-tresnak

Interes-gatazka zuzentzeko tresnen helburua inplikaturako pertsona zigortzea eta/edo interes-gatazkek eragindako edozein kalte konpontzea da. Interes-gatazkek ekiditeko tresnak honako hauek dira:

EX POST EGIAZTAPEN-KONTROLAK

Erakunde betearazleek interes-gatazkarik egon den egiaztatuko dute, interes-gatazkek prebenitzeko erabilitako kontrol-zerrendak aprobetxatuz. Ebaluazioak betetzeko erabiliko diren *ex post* mekanismoak IGEAn zentratzen dira. IGEA beste informazio mota baten argitan aztertu beharko da, interes-gatazka egoerak egiaztatu behar direnean.

Interes-gatazka penala bada, agintaritzak, gainera, estatu-legeriaren arabera, judizialki salatu beharko du, kasuaren ondoriozko alderdi administratiboak gainbegiratu beharko ditu eta egoeraren arriskuen azterketa egin beharko du.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak IGAErekin lankidetzan (III. maila) berariazko auditoriak egin ahal izango ditu ikusteko ea badagoen nahikoa neurri interes-gatazkek prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko.

KOMUNIKAZIO-SISTEMA

Interes-gatazka egon litekeela uste bada, eragindako pertsonak idatziz jakinaraziko dio egoera hierarkian gorago dagoenari, eta zerbitzu juridikoek txostena egingo dute kasua instantzia judizialetera igortzeko erabakia babesteko, baldin eta interes-gatazka zigor-arlokoa bada.

Gainera, gertatutakoa jakitera emango da, erabakien gardentasuna bermatzeko eta antzeko egoeretan disuasio-elementu gisa balio dezan.

JARDUERA BERRIKUSTEA, ETETEA ETA/EDO AMAITUTZAT EMATEA

Prozeduraren batean interes-gatazka eragin dezakeen kausaren batean dauden agintariak eta langileak ez dute esku hartuko dena delako prozedura horretan.

Interes-gatazka onuradun pribatuei, bazkideei, kontratistei eta azpikontratistei ere eragingo die, baldin eta euren jarduketak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatzen badira eta euren interesen alde jardun badezakete, baina Europako, Espainiako eta autonomia-erkidegoetako finantza-interesen aurka, interes-gatazka baten esparruan.

Entitate betearazleak bertan behera utziko dituzte interes-gatazkaren eraginpean dauden jarduera guztiak, eta bertan behera utziko dute ukitutako kontratua/egintza, eta dagokion kontratazio publikoko prozeduraren zatia berriz egin beharko dute.

Horrez gain, interes-gatazkarik antzematen bada, neurriak hartu behar dira. Neurriok kasuan-kasuan aplikatu beharreko lege eta barne-erregelamenduen arabera izango dira (diziplina-edo administrazio-zehapenak eta/edo diziplina-espeditzea).

5. Estatu-laguntzak eta finantzaketa bikoitza ekiditeko prozesuak eta tresnak

5.1. Testuingurua

Plan hau aplikatu behar zaien erakundeek estatu-laguntzei buruzko araudia erabat errespetatzen dela eta finantzaketa bikoitzik ez dagoela une oro ziurtatu ahal izateko prozedurak aplikatu behar dituzte. Horretarako, prozedurak bat etorriko dira estatu-laguntzen araudiarekin bateragarria izateari eta finantzaketa bikoitza ekiditeari buruzko HFP 1030/2021 Aginduaren 7. artikularekin eta III.D eranskinarekin

Estatu-laguntzaren kontzeptua Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikulutik 109. artikulura bitartean eta hura garatzen duen araudian dago zehaztuta.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, 8. kontuan hartuzkoan adierazten duenez, «Inbertsio pribatuak inbertsio publikoko programen bidez ere susta litezke, bereziki, finantza-tresnen, dirulaguntzen eta bestelako tresnen bidez, betiere estatu-laguntzen arloko arauak errespetatzen badira».

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren («España Puede») 4.6 apartatuak, kontrolari eta auditoretzari buruzkoak, berariaz jasotzen ditu estatu-laguntzak Suspertze eta Erresilientzia Mekanisмотik datozen funtsen betearazpenaren kontrol-ekintzaren zati gisa, eta zehazten du ezen finantzaketa bikoitz gisa jo daitekeela, «dirulaguntza publikoen kasuan, Batasunaren finantzaketa bikoitza ez ezik, jatorria kontuan hartu gabe gerta litekeen edozein gehiegizko finantzaketa ere».

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua, 2018ko uztailaren 18koak, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu dakizkiokeen finantza-arauei buruzkoak (Finantza Erregelamendua), berariaz ezartzen du 188. artikuluan finantzaketa bikoitzaren debekua, dirulaguntzei aplikatu beharreko printzipio orokor gisa, eta 191. artikuluan hurrengo adierazten du: «Gastu berberak inola ere ezingo dira aurrekontuaren bidez birritan finantzatu».

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduko 62. kontuan hartuzkoan xedatzen denari jarraikiz, Erregelamendu horretan adierazitako ekintzek koherenteak izan behar dute abian diren Batasunaren programekin, eta horiek osatu behar dituzte, eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanisмотik eta Batasunaren beste programa batzuetatik eratorritako finantzaketa bikoitza saihestu behar dute (gastu berbera estaltzeko). Erregelamendu horren 9. artikulua xedatzen du ezen erreformek eta inbertsio-proiektuek Batasunaren beste programa eta tresna batzuen laguntza jaso ahalko dutela, betiere laguntza horrek kostu bera estaltzen ez badu.

5.2. Prozesuak eta tresnak

AUTOEBALUAZIOA

Entitate betearazle guztiek autoebaluazio-galdetegia bete beharko du, gutxienezko estandarra betetzen dela bermatzeko. Autoebaluazio-galdetegia aldi behin errepikatuko da, emaitzen txostenetan hautemandako arriskua zein den.

Agiri honen II. eranskinean dago jasota estatu-laguntzen bateragarritasunaren eta finantzaketa bikoitza ekiditeko testa (HFP/1030/2021 Aginduaren II.B6 eranskina).

Gainera, printzipio hori beteko dela bermatzeko, HFP/1030/2021 Aginduaren III.D eranskina bete beharko da, SEEPak finantzatutako tresna juridiko bakoitzerako.

KUDEAKETA-AITORPENA ORDAINKETA-ESKAERAN

SEEPak Europako Batzordeari zenbait ordainketa-eskaera egitea aurreikusten du.

Eskaera horiek mugarri eta helburuak betetzearen mende egongo dira, eta Plan hau aplikatuko zaien entitateek **VII. eranskinean** jasotako ordainketa-eskaeraren kudeaketa-aitorpenaren ereduaren bidez izenpetuko dituzte.

Kontrol-organoek berrikusiko dute SEEPeko jarduketak egikarrituko dituzten organoek eta SEEPeko jarduketak egikaritzeko agindu zaien bestelako erakundeek aipatu kudeaketa-aitorpena aurkeztu ote dute, iruzurra ekiditeari dagokionez. Aurreikusitako egutegira egokituko da aldizkakotasuna.

BARNE-KUDEAKETA ETA -KONTROLA

Plan hau aplikatuko zaien entitateek euren kontrol-sistema propioa erabiliko dute, funtsak finantzaketa bikoitza ekiditeko araudiaren arabera kudeatu direla ziurtatzeko (I. eta II. mailak). Gainera, IGAEk, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarekin elkarlanean (III. maila), berariazko auditoretzak egin ahal izango ditu, estatu-laguntzak eman ez direla eta finantzaketa bikoitzik ez dagoela egiaztatzeko.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak finantzatutako tresna juridiko guztiek barne hartuko dute onuradunak kostu bera finantzatu duten gainerako funtsen berri emateko betebeharra, eta, gainera, erantzukizunpeko adierazpen bat izenpetzeko betebeharra, onuradunek/kontratistek finantzaketa bikoitzik ez dutela adieraziko dutena.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak finantzatutako dirulaguntzen kasuan, dirulaguntza ematen duten erakundeek eta organo kudeatzaileek Espainiako Dirulaguntzen Datu-basea (BDNS) kontsultatu eta egiaztatu beharko dute, sistematikoki. Hor dago erregistraturik funtsen azken onuradunei buruzko informazioa (finantzaketa bikoitza ekiditeko). EAEko Dirulaguntzen Erregistro Orokorra ere kontsultatu beharko dute. Kontsulta horiek justu dirulaguntza ematea erabaki aurreko unean eta obligazioa onartu eta ordainketa proposatu aurreko unean egin behar dira.

Lehiakide askoko dirulaguntza-deialdietan, onuradunak 100dik gora badira, onuradun guztien laginketa bat egin beharko da, laginak hautatzeko metodologia bati jarraituz.

Barne-kontrolaren barnean, kontuan hartuko dira neurrian esku hartzen duen edozein pertsona fisiko edo juridikok gauza ditzakeen arrisku handieneko jarduketak.

6. Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragitea bermatzeko prozesuak eta tresnak

6.1. Testuingurua

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 EB Erregelamenduak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzekoak, 5.2 artikuluan xedatzen du honako hau: «Mekanismoak kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa betetzen duten neurriak bakarrik babestuko ditu».

Printzipio hori garatzen du irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzekoak. Aginduaren 5. artikuluan xedatzen da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko egikaritze-neurrietako ezeinek ez diela kalte nabarmenik eragingo (DNSH) 2020/852 EB Erregelamenduan (inbertsio jasangarriak errazteko esparrua ezartzekoa eta 2019/2088 EB Erregelamendua aldatzekoa) zehazten diren sei ingurumen-helburuei.

Oin-oharrean adierazten dira helburuak. Hauek dira:

- Klima-aldaketa apaltzea
- Klima-aldaketara egokitzea.
- Ur- eta itsas baliabideak modu jasangarrian erabiltzea eta babestea.
- Ekonomia zirkularrerako trantsizioa egitea, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.
- Kutsadura prebenitu eta kontrolatzea.
- Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta leheneratzea

Agindu horren arabera, SEEPeko osagaien plangintzan eta betearazpenean nahitaez kontuan hartzeko printzipio edo irizpide berariazkoa da «ingurumenean kalte nabarmenak eragiteko arriskuaren analisia egitea (*Do No Significant Harm*, DNSH), eta emaitzaren jarraipena egitea nahiz emaitza hasierako ebaluazioarekiko egiaztatzea».

6.2. Ingurumenean kalte nabarmenik eragin ez dela bermatzeko prozesua (DNSH)

Entitate betearazleek SEEPeko neurri guztiak ebaluatu behar dituzte, DNSH ikuspegiaren arabera. Ebaluazio-prozesuak bi etapa ditu:

Lehen etapan, kasuan kasuko neurriak sei ingurumen-helburuei kalte egingo diela aurreikusten ote den aztertu behar da. Aurreikusten bada neurriak ez diola kalterik eragingo ingurumen-helburuetako ezeini, helburuz helburu justifikatu/azaldu beharko da zergatik den hala:

Lehen etapa amaituta, bigarren etapan, neurriak ingurumen-helbururen bati edo gehiagori kalte egingo diola aurreikusten bada, horixe sakon justifikatu beharko da.

Prozesua errazteko, VIII. eranskinean daude jasota ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioari buruzko autoebaluazio-fitxak (DNSH).

7. Planaren jarraipenerako eta ebaluaziorako jarraibideak

Iruzzurraren aurkako Neurrien Plan hau aplikatu behar zaien sektore publikoko entitateek planaren jarraipena eta ebaluazioa egingo dute, egunean edukitzeko eta Espainiako nahiz Europako jarraibideetara egokitzeke.

JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Zuzendaritza-zentroek Planaren jarraipena eta ebaluazioa urtean behin egingo dute, Plana betetzen dutela zaintzeko, araudiaren eta praktikaren ikuspegitik, baita kudeaketa-prozesuetan hobekuntza-alderdiak identifikatzeko ere.

Jarraipena eta ebaluazioa egiteko, entitate eta organo kudeatzaileengandik euren eskura jarri diren inprimakien bidez jasotako ekarpenak baliatu ahal izango dira, eta/edo kontrol-mekanismo beharrezko gehiago identifikatzen dituzten auditore-ondorioak.

Kudeaketa-organok edo kontrol-organok arriskuren bat detektatuz gero, aldizkakotasuna edozein dela ere, Planean jasotako neurrien jarraipena egin beharko da.

Halaber, ezarritako helburuen eta helburuak betetzearen aurkako ekintzaren bat gauzatzen bada, erakundeak gertatutakoa aztertu, eta kudeaketa- eta kontrol-egituretan eta -prozesuetan behar diren aldaketak ebatzi behar ditu.

PROZEDURAK EGUNERATZEA

Urtean behin aztertuko da Planean jasotako prozedurak sartzea eta/edo eguneratzea beharrezkoa den, irregulartasunak prebenitzeko.

Beharrezkoa bada, prebentzio-planak sartuko dira.

EGUNERATZEAK EDO ALDAKETAK JAKINARAZTEA ETA EZAGUTARAZTEA

Plana eta egiten zaizkion eguneratzeak Plan hau aplikatuko zaien entitateen webguneetan argitaratuko dira, eta tartean diren guztiei ezagutaraziko zaizkie, batik bat kudeaketa-unitateei.

Plana berrikustearen ondorioaz sartu diren alderdiak edo egin diren aldaketak ezagutarazteko ahalegin berezia egingo da.

8. Proposatzen diren neurrien laburpen exekutiboa

Taula honetan daude jasota agiri honen 5., 6., 7., 8. eta 9. puntuetako berariazko neurriak, dagokien apartatua adierazita, hala nola neurri horiek ezartzeko ereduak eta neurriak zein mailari dagozkion.

Iruzzurren eta ustelkeriaren aurkako tresnak eta prozesuak			
Neurria	Deskribapena	Eredua	Maila
Iruzzurren aurka borroka egiteko adierazpen instituzionala (IGEA)	Argi eta irmo adieraztea kudeaketa-organoak estandar etiko gorenak lortzeko konpromisoa hartu duela iruzurraren aurkako borrokan.	I. eranskina	I.
Iruzzurren aurkako konpromisoa laguntzen jakinarazpenetan.	Europako, Espainiako eta EAeko iruzurraren aurkako neurriak betetzeko konpromisoaren adierazpen berariazkoa.	Europako kontratazio agiri bakarra (EKAB).	I.
Unitate, zerbitzu edo organo arduraduna	Plana aplikatzea eta jarraipena egitea; iruzurraren ebaluazioaren arduraduna; salaketak aztertu, ebaluatu eta komunikatzea; eta zuzenketa-neurriak proposatzea.		
Inpaktuaren hasierako ebaluazioa eta arriskuaren probabilitatea	Iruzurra jasateko sentikorrenak diren prozesu zatiak identifikatzeko era, baita horiek kontrolatzeko eta hautemandako arrisku mailaren arabera beharrezkoak eta proportzionatuak diren neurriak hartzeko ere.	II. eranskina	I.
Etika eta Jokabide Kodea.	Iruzurgileei iruzur-asmoa burutik kentzeko eta agintaritzek nahiz tartean direnek iruzurraren aurkako konpromiso sendoena hartzeko bitartekoa.	III. eranskina	I.
Prestakuntza eta sentsibilizazioa	Iruzzurren aurkako politikari buruzko prestakuntza-jarduera teoriko eta praktikoa, SEMek finantzaturako azpiproiektuen eta jarduketan kudeaketan eta betearazpenean esku hartzen duten langileentzat.		I.
Egiaztapena eta datuen gurutzaketa.	Arrisku-ebaluazioa egiteko datuak lortu, gorde eta aztertzea bideratutako tresnak erabiltzea.		I.
Barne-kontrolak	Kudeaketa- eta betearazpen-organoen barne-kontrolak, edozein anomalia, irregulartasun edo iruzur-jokabide detektatzeko.		I eta II
Komunikazio-sistema	Barneko eta kanpoko kanalak, iruzur-susmoen berri emateko mekanismo egoki eta argiekin.	IGAEn kanal publikoa, gardentasun-atariak eta Arartekoa.	I.
Adierazleen katalogoa (bandera gorriak).	Iruzurra dagoela zehazteko erreferentzia-adierazleak.	IV. eranskina	I.
Faltsututako dokumentuak detektatzea.	Esku hartzen duten administrazioen barne-kontrolak, hauek kontuan hartuta: adierazleen katalogoa, merkataritza-erregistroetako datu-baseak, Espainiako erakundeak, Batasuneko erakundeak, enplegatuen espedienteak, etab.		I.
Iruzzurren ebaluazioa eta sailkapena.	Iruzzurren eragina ebaluatuko dute, eta, horretarako, neurria parte hartzen dutenek emandako ebaluazio-txostenetan oinarrituko dira.	Jarraipen- eta ebaluazio-txostenak.	I.
Jarduera berrikustea, etetea eta/edo amaitutzat ematea	Balizko iruzur bat edo susmo funtsatu bat detektatzeak azpiproiektua edo jarduketa etetea ekarriko du, eta eragindako azpiproiektuak edo ekintza-ildoak berrikusi beharko dira.		I.

Iruzuraren eta ustelkeriaren aurkako tresnak eta prozesuak			
Neurria	Deskribapena	Eredua	Maila
Komunikazio-sistema	Balizko iruzurra edo susmo funtsatua Espainiako Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzuari jakinaraztea, baita Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari, fiskaltzari eta auzitegiei, eta entitate betearazleari zein organo kudeatzaileei.		I.
Espedienteak berrikustea	Balizko edo frogatutako iruzurrarekin loturik edozein prozesu edo prozedura berrikusiko da, eta eragiketa horretan edo antzeko izaerako eragiketetan sartutako espediente guztiak nahiz barne-kontrolako sistemak ere bai.	Emaitzaren eta autoebaluazioaren txostenak.	I.
Jasotako zenbatekoak berreskuratzea (bidegabeko ordainketak), kofinantzaketak eta ekintza penala.	Iruzurrezko eran erabili diren funtsak berreskuratzearen segimendurako prozesuak formalizatuko dira. Disuasio-elementu gisa, zehapen-jarduerak agerian jarriko dira.		I.

Interes-gatazkak saihesteko prozesuak eta tresnak			
Neurria	Deskribapena	Eredua	Maila
Tartean diren alderdiei interes-gatazken modalitateen berri ematea	Inplikaturik egon daitezkeen pertsonen interes-gatazka zer den, gatazka horren modalitateak, inplikazioak eta saihesteko modua ezagutzen dituztela bermatzea.		I.
Interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA)	Adierazpena egiten duenak hauxe zehaztuko du: itxurazko, balizko edo benetako interes-gatazka dagoen, egoera hori eragin dezakeen inguruabarrik dagoen eta balizko interes-gatazka oro adierazteko konpromisoa hartzen duela.	V. eranskina	I.
Balizko interes-gatazken prebentzio, detekzio eta kudeaketari buruzko dokumentua	Bertan, langileei informazioa ematen zaie interes-gatazken modalitateei buruz, gatazka hori saihesteko moduei buruz eta gai horren inguruko indarreko araudiari buruz, eta balizko interes-gatazkarik hautemanez gero jarraitu beharreko prozedura jasotzen da.	VI. eranskina	
Egiaztapena eta datuen gurutzaketa	Arrisku-ebaluazioa egiteko datuak lortu, gorde eta aztertzea bideratutako tresnak erabiltzea.		I.
Adierazleen katalogoa (bandera gorriak).	Interes-gatazka dagoela zehazteko erreferentzia-adierazleak.	IV. eranskina	I.
Etengabeko eta aldizkako ebaluazioa	Etengabeko monitorizazioa egingo da balizko interes-gatazka saihesteko eta goiz detektatzeko.	II. eranskina	I.
Ex post egiaztapen-kontrolak	Interes-gatazkarik egon den egiaztatuko dute, interes-gatazka prebenitzeko erabilitako kontrol-zerrendak aprobetxatuz.		I. eta III.
Komunikazio-sistema	Interes-gatazka ukitutako pertsonak idatziz adieraziko dio horixe hierarkian gorago dagoenari, eta txosten juridiko bat egin behar da, penala izatekotan, auzitara eramatea babesteko.		I.
Jarduera berrikustea, etetea eta/edo amaitutak ematea	Eragindako prozeduretatik apartatuko dira interes-gatazka eragiten dien agintaritzak, langileak, onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak.		I.

Estatu-laguntzak eta finantzaketa bikoitza ekiditeko prozesuak eta tresnak			
Neurria	Deskribapena	Eredua	Maila
Autoebaluazioa	Entitate betearazleek aldi behin beteko dute autoebaluazio-galdetegia, gutxieneko estandarra betetzen dutela bermatzeko (HFP/1030/2021 Agindua, II.B.6 eranskina).	II. eranskina	I.
Kudeaketa-aitorpena ordainketa-eskaeran.	Aitorpena mugarriak eta helburuak betetzeari lotuta dago, eta ordainketa-eskaerari atxikiko zaio. Eskaera aldi behin bidaltzen zaio Europako Batzordeari.	VII. eranskina	I.
Barne-kudeaketa eta -kontrola	Kontrol-sistemen bidez kontrolatuko da ez dagoela finantzaketa bikoitzik. IGAEk, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarekin elkarlanean, auditoretza espezifikoak egin ahal izango ditu.		I., II. eta III.

Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragitea bermatzeko prozesuak eta tresnak		
Neurria	Deskribapena	Eredua
Ingurumenean kalte nabarmenik eragin ez dela bermatzeko prozesua (DNSH)	SEEPeko neurriak DNSH betetzearen ikuspegitik ebaluatu behar dira bi etapatan: 1. Neurriak 1030/2021 Aginduan adierazitako sei ingurumen-helburuetan eraginik ote duen. 2. Justifikazio sakona, neurriak aipaturako sei ingurumen-helburuetako batean eragina izan dezakeen kasuetan.	VIII. eranskina

9. Eranskinak

9.1. I. eranskina - Iruzurraren aurkako borrokaren adierazpen instituzionala

.....(e)k egikaritze-erakundearen funtzioak egingo ditu Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean.

Ildo horretan, arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko estandar altuenekin duten konpromisoa adierazi nahi dute, bai eta integritate-, objektibotasun- eta zintzotasun-printzipio zorrotzenekin bat egiten dutela ere, haren jarduera harekin harremana duten eragile guztiek iruzurraren eta ustelkeriaren aurkakotzat har dezaten.

Jaurlaritzako langileek, enplegatu publiko direnez gero, eginbehar hauek dituzte, besteak beste: «interes orokorrak zaindu beharko dituzte Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa betez; halaber, honako printzipio hauen arabera ere jardun beharko dute: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoaren aldeko dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kulturaren eta ingurumenaren sustapena, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua» (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren urriaren 30eko 5/2015 Legearen 52. artikulua).

Politika horren helburua da erakundearen barruan iruzurrezko jarduerak egiteko gogoia kenduko duen kultura sustatzea, jarduera horiek prebenitu eta detektatzea erraztuko duena, eta kasu horiek kudeatzeko prozedura eraginkorrak garatzea sustatuko duena.

.....(e)k, erakunde betearazle gisa, bere gain hartutako eginkizunetan sartzen da iruzurraren aurkako neurriak abian jartzea, Europar Batasuneko araudian ezarritakoaren esparruan eta proportzionaltasun-irizpideei jarraikiz. Era berean, prozesu-arduradunen eta -kudeatzaileen laguntza du, bakoitzak bere erantzukizun-arloaren barruan barne-kontrolerako sistema egokia dagoela ziurtatzeko eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak behar bezala ezartzen direla bermatzeko.

Iruzurraren aurka borrokatzeko neurri eraginkorrak eta proportzionatuak jarriko dira abian, aurreko aldietan lortutako esperientzian eta iruzur-arriskuaren ebaluazioan oinarrituta.

Era berean, atzemandako irregulartasunak edo iruzur-susmoak salatuko ditu, barruko jakinarazpen-kanalen bidez, eta betiere agintaritzaren arduradunarekin, kontrol-agintaritzarekin, Espainiako Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzuarekin eta Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoarekin lankidetzan. Txosten guztiak konfidentzialtasun zorrotzenarekin eta gai hori arautzen duten arauen arabera tratatuko dira.

Azken batean, kontrol-sistema bat ezarri da iruzurrak prebenitzeko eta, ahal den neurrian, detektatzeko eta, gertatuz gero, horien eragina zuzentzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko XXXXXaren XX(a).

9.2. II. eranskina - Arriskuaren ebaluazioa, inpaktua eta probabilitatea

Autoebaluazio- eta arrisku-testa (HFP 1030/2021 Agindua, II. eranskina):

- A. Helburuak eta prozedura.
- B. Testa.
 - 1. Funtsezko elementuak.
 - 2. Kudeaketa-kontrola.
 - 3. Mugarriak eta helburuak.
 - 4. Ingurumenaren gaineko kalteak.
 - 5. Interes-gatazka, eta iruzurraren zein ustelkeriaren prebentzioa.
 - 6. Estatu-laguntzen araubidearekiko bateragarritasun eta finantzaketa bikoitza ekiditea.
- C. Arriskuaren zenbatespena: balorazio-taula.

II.A eranskina

Helburuak eta prozedura

SEEPa onartzeak berekin dakar zenbait printzipio eta irizpide txertatzea, eta, horiek, zenbaitetan, ez dira ohiko erreferentzia sistematikoa administrazio publikoek aplikatzen dituzten prozeduretan.

Gainera, osagaien mugarren eta helburuen garapenean inplikaturako entitateen helmena eta askotarikotasuna ikusirik, eskakizun berriak egin behar dira, batik bat kudeaketa-praktikak homogeneizatzeko.

Hori horrela, egoki iritzi SEEP osoan estandar bat aplikatzea errazteko erreferentzia batzuk zehazteari. Horretarako, alderdi kritiko zenbaiten autoebaluazioa egiteko eskema diseinatu da, Europar Batasuneko araudian ezarritako eskakizunak hobeto beteko direla ziurtatzeko. Galdera erraz samar batzuk daude oinarrian, garrantzi handia dutenak, termino bakoitzaren azpian datzan eskakizunari dagokionez; izan ere, proiektuak eta azpiproiektuak kudeatzeko berme oinarrizkoak dira, eta espero diren emaitzak lortzeko beharrezkoak.

Analisia bi ataletan egituratu da:

– Lehenak, funtsezko alderdienak, horien estaldura edo estaldura eza identifikatzea du helburu, termino erradikaletan; hau da, egitura organikoan eta prozeduretan aintzat hartzea ala ez. Begien bistakoa dirudi, praktikan, ezinezkoa dela ezarri diren eskakizunak betetzea, baliabide espezifikoen esleipena eta prozedura kudeaketa-esparrura egokitzea kontuan hartzen ez badira. Horrenbestez, erantzunak modu binarioan proposatzen dira.

– Bigarreanean, kritikotzat jotzen diren alderdi bakoitzari buruzko zenbait test prestatu dira. Helburua da ahalik eta modu errazenean mailakatzea zenbateraino egokitzen diren egitura organikoa eta eskuragarri dauden prozedurak beharizanetara, eta hausnarketa bultzatzea SEEParen eskakizunei kaudimenez heltzeko *a priori* erabakigarriak izango liratekeen alderdiei buruz.

Autoebaluazio-prozedura arriskuaren kuantifikazioarekin ixten da, planteatzen diren galde-sorten erantzunetan oinarrituta. Analisia balio bakar batean laburbiltzen da. Helburua da «arrisku txikia» lortzea.

Helburu hori lortzen ez bada, aztergai den erakundeak neurriak hartu beharko ditu, testetako galderen oinarrian dauden eskakizunak hobetzeko.

Kontuan hartuta mugarriak eta helburuak lortzeko garatu behar diren jarduketak kontrol-agintaritzak, Estatuko Administrazioako Esku-hartzailatza Nagusiak, Kontuen Auzitegiak, Europako Batzordeko zerbitzuek eta EBko Kontuen Auzitegiak berrikusi ditzaketela, ezinbestekoa da autoebaluazioa aldizka egitea, gutxienez urtean behin, eta horren emaitza sistema elikatzen duen dokumentazioan sartzea. Azken batean, SEEPeko osagaiak garatzeko proiektuen eta azpiproiektuen egikaritzean jardunbide egokiei jarraitzen zaiela egiaztatzen du horrek. Beraz, ministro-agindua indarrean jarri eta bat egingo da lehen autoebaluazioa, eta, beharrezkoa bada, beharrezko diren neurriak hartuko dira kudeaketa-eredua eraginkorra izan dadin.

II.B.1 eranskina
Funtsezko alderdien testa
Ebaluazio-esparrua

Erakundea/entitatea:

Ebaluatzailea:

Kargua:

Data:

FUNTSEZKO ALDERDIAK (urratzen badira, berehala zuzendu behar dira)	Bai	Ez	Ez dagokio
A. Zure ustez, betetzen al duzue kudeaketa kontrolatzeko/barne-auditoretzak egiteko funtzioa?			
B. Aplikatzen al dituzue mugarri, helburu eta proiektuen jarraipena egiteko prozedurak?			
C. Erabakiak hartzeko prozesuetan, printzipio hauek sistematikoki ebaluatzen al dituzue?	—	—	—
i. Nahi gabeko ingurumen-inpaktuak (<i>Do no significant harm, DNSH</i>)			
ii. Etiketatzeko digitala eta etiketatze berdea.			
iii. Interes-gatazka, iruzurra eta ustelkeria.			
iv. Finantzaketa bikoitzaren prebentzioa.			
v. Estatu-laguntzen araubidea.			
vi. Onuradunen, kontratisten eta azpikontratisten identifikazioa.			
vii. Jakinarazpena.			

II.B.2 eranskina

Analisia, arloaren, betetze-mailaren eta arriskuaren arabera

Arloa: Kudeaketa-kontrola / Barne-auditoretza.

GALDERA	BETETZE-MAILA			
	4	3	2	1
1. Ba al dago berariazko zerbitzurik edo giza baliabiderik?				
2. Argi eta garbi zehaztutako prozedurak aplikatzen dira?				
3. Egiten al da kontrol-plan bat, eta ebaluatzen al da haren gauzatze maila?				
4. Egindako lanak dokumentatzen al dira? Egiten al dira emaitzaren txostenak?				
5. Lortutako emaitzak Zuzendaritzari edo arduradunei helarazten zaizkie?				
6. Aztertzen al da neurri zuzentzaileen aplikazioa?				
7. Egin al da kontrol-planik SEEPari dagokionez?				
8. Ziurtatzen al da neurri zuzentzaileak epe laburrean aplikatuko direla?				
9. Kudeaketa-txostenari buruzko baliozkotze-lan espezifikorik egiten al da?				
10. Kanpoko auditoreek nola baloratu dute egindako kudeaketa-kontrola?				
Puntuen guztizko partziala.				
Puntuen guztizkoa.				
Gehieneko puntuak.	40			
Puntu erlatiboak (puntuen guztizkoa/gehieneko puntuak).				

Oharra: 4 gehieneko betetzearen baliokidea da, 1 gutxienekoarena.

II.B.3 eranskina
Mugarrien eta helburuen testa

GALDERA	BETETZE-MAILA			
	4	3	2	1
1. Ba al dago aurretiko esperientziarik helburuen araberako kudeaketan?				
2. Aplikatzen al dira mugarriak eta helburuak kudeatzeko prozedurak? (Xede horretarako, galdetegi bat dago III.A eranskinean).				
3. Jaso al da mugarriak eta helburuak kudeatzeko prestakuntzarik?				
4. Badago giza baliabide espezifikorik kudeaketarako eta jarraipeneko informazio-sisteman mugarri eta helburuen informazioa emateko?				
Puntuen guztizko partziala.				
Puntuen guztizkoa.				
Gehieneko puntuak.	16			
Puntu erlatiboak (puntuen guztizkoa/gehieneko puntuak).				

Oharra: 4 gehieneko betetzearen baliokidea da, 1 gutxienekoarena.

II.B.4 eranskina
Ingurumen-kalteen testa

GALDERA	BETETZE-MAILA			
	4	3	2	1
1. Aplikatzen al dira «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioaren betetzea baloratzeko prozedurak? (Xede horretarako, egiaztapen-zerrendaren (<i>checklist</i>) eredu bat emango da, III.B eranskina).				
2. Ba al dago eginkizun hori egiteko giza baliabide espezifikorik?				
3. Ez al dago aurretiazko gorabeherarik «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa betetzeari dagokionez?				
4. Egiaztatu al da betearazpen-maila guztietan «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa betetzeari buruzko azterketa egin dela?				
Puntuen guztizko partziala				
Puntuen guztizkoa				
Gehieneko puntuak	16			
Puntu erlatiboak (puntuen guztizkoa / gehieneko puntuak)				

Oharra: 4 gehieneko betetzearen baliokidea da, 1 gutxieneoarena.

II.B.5 eranskina

Interes-gatazkaren, eta iruzurraren eta ustelkeriaren prebentzioaren testa

GALDERA		BETETZE-MAILA			
		4	3	2	1
1. Ba al dago «iruzurraren aurkako neurrien plan bat» eta plan horri esker erakunde betearazleak edo erabakitzaileak berma eta adieraz dezake, kasuan kasuko jarduketaren eremuan, funtsak arau aplikagarriari jarraikiz erabili direla, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko?					
2. Egiaztatu al da «iruzurraren aurkako neurrien plana» dagoela egikaritze-maila guztietan?					
Prebentzioa					
3. Ba al dago iruzurraren aurka borrokatzeko konpromisoa hartu izanaren adierazpenik, maila gorenean?					
4. Egiten al da arrisku espezifikoa, horien inpaktua eta gertatzeko probabilitatea identifikatzen dituen autoebaluaziorik, eta berrikusten al da aldian-aldian?					
5. Zabaldu al da kode etiko bat eta ematen al da opari-politikari buruzko informaziorik?					
6. Ematen al da Etika Publikoa sustatzen duen eta iruzurra detektatzea errazten duen prestakuntzarik?					
7. Egin al da interes-gatazkak tratatzeko prozedurarik?					
8. Betetzen al da interes-gatazkarik ezaren adierazpenik parte hartzen duten guztien eskutik?					
Detekzioa					
9. Ezarri al dira iruzur-adierazleak edo alerta-zeinuak (bandera gorriak) eta jakinarazi al zaizkie horiek antzemateko moduan dauden langileei?					
10. Erabiltzen al dira datuen prospekzioa egiteko edo arriskuak puntuatzeko tresnak?					
11. Ba al dago biderik interesdunek salaketak aurkezteko?					
12. Ba al dago salaketak aztertzeaz eta neurriak proposatzeaz arduratzen den unitaterik?					
Zuzenketa.					
13. Ebaluatzen al da iruzurraren eragina eta jotzen al da sistemikotzat edo puntualtzat?					

GALDERA		BETETZE-MAILA			
		4	3	2	1
14. Erretiratzen al dira iruzurrak eragindako eta SEMak finantzatutako edo finantzatu beharreko proiektuak edo horien zatiak?					
Jazarpena					
15. Jakinarazten al zaizkio gertatutakoak eta hartutako neurriak egikaritzeaz edo erabakiak hartzeaz arduratzen den erakundeari edo agintaritza arduradunari, dagokionaren arabera?					
16. Salatzen al dira zigortzeko moduko egitateak, dagokien kasuetan, estatuetao edo Europar Batasuneko agintari publikoen edo fiskaltzaren eta auzitegi eskudunen aurrean?					
Puntuen guztizko partziala					
Puntuen guztizkoa					
Gehieneko puntuak		64			
Puntu erlatiboak (puntuen guztizkoa / gehieneko puntuak)					

Oharra: 4 gehieneko betetzearen baliokidea da, 1 gutxienekoarena.

II.B.6 eranskina

Estatu-laguntzen araubidearekin bateragarria den ikusteko eta finantzaketa bikoitza saihesteko testa

Estatu-laguntzak

GALDERA	BETETZE-MAILA			
	4	3	2	1
1. Aplikatzen al dira bere eremuan eman beharreko laguntzak jakinarazteko/aldez aurretik jakinarazteko/ beharra baloratzeko prozedurak, eta, hala badagokio, aldez aurreko jakinarazpena / komunikazioa egiteko, estatu-laguntzei buruzko Europar Batasuneko araudia errespetatzen dela bermatzeko? (Xede horretarako, egiaztapen-zerrendaren (<i>checklist</i>) eredu bat emango da).				
2. Ba al dago eginkizun hori egiteko giza baliabide espezifikorik?				
3. Ez al dago aldez aurreko gorabeherarik estatu-laguntzei buruzko araudia betetzeari dagokionez?				
4. Egin al da betearazpen-maila guztiek estatu-laguntzen araudia errespetatzen dutela jakiteko analisirik?				
Puntuen guztizko partziala				
Puntuen guztizkoa				
Gehieneko puntuak	16			
Puntu erlatiboak (puntuen guztizkoa / gehieneko puntuak)				

Oharra: 4 gehieneko betetzearen baliokidea da, 1 gutxienekoarena.

Finantzaketa bikoitza

GALDERA	BETETZE-MAILA			
	4	3	2	1
1. Aplikatzen al da prozedurarik bere kudeaketa-eremuan SEEPa gauzatzean finantzaketa bikoitza egon daitekeen baloratzeko? (Xede horretarako, egiaztapen-zerrendaren (<i>checklist</i>) eredu bat emango da).				
2. Ba al dago eginkizun hori egiteko giza baliabide espezifikorik?				
3. Ez al dago aurretiko gorabeherarik finantzaketa bikoitzari dagokionez (SEMaren edo Europako beste edozein funtsen esparruan)?				
4. Egin al da betearazpen-maila guztietan finantzaketa bikoitza egon daitekeela jakiteko analisirik?				
Puntuen guztizko partziala				
Puntuen guztizkoa				
Gehieneko puntuak	16			
Puntu erlatiboak (puntuen guztizkoa / gehieneko puntuak)				

Oharra: 4 gehieneko betetzearen baliokidea da, 1 gutxienekoarena.

Arrisku-zenbatespena: balorazio-taula

Eremua	(a) Puntu erlatiboak	(b) Haztapen-faktorea	(c) Esleitutako balioa
Kudeaketa-kontrola.		% 18	
Mugarriak eta helburuak.		% 34	
Ingurumenaren gaineko kalteak.		% 12	
Interes-gatazka, iruzurraren zein ustelkeriaren prebentzioa.		% 12	
Estatu-laguntzen araubidearekiko bateragarritasuna.		% 12	
Finantzaketa bikoitza saihestea.		% 12	
Guztira.	E/A	% 100	

Oharra: Erreferentzia-balioa.

Arrisku txikia:	Esleitutako balioa, guztira ≥ 90
Arrisku ertaina:	Esleitutako balioa, guztira ≥ 80
Arrisku handia:	Esleitutako balioa, guztira ≥ 70

Esleitutako guztizko balioa kalkulatzeko, eremu bakoitzari esleitutako balioak (c) batu behar da. Balio hori lortzeko, kasuan kasuko testean lortutako puntu erlatiboak (a) haztapen-faktorearekin (b) biderkatu behar dira.

9.3. III. eranskina.- Etika- eta jokabide-kodea

[Eranskin hau ez da bete beharreko eredia. Informazio-eranskina da, etika-kode baten gutxieneko edukia islatzen duena, entitateek, nahi izatera, erreferentziatzat har dezaten].

Kultura etiko bat garatzea da, etika- eta jokabide-kodea eta kode horren hedapena barne hartuta, iruzur, ustelkeria eta interes-gatazken kasuetarako prebentzio-neurriarik bat. Horretarako, aipatu kultura garatzeko estrategiak ezarriko dira; iruzurraren aurkako egitura eta politika espezifikoak uztartuko dira mekanismo eta portaera orokorrago zenbaitekin. Atal hauetan daude jasota:

- Eremu subjektiboa.
- Printzipio gidariak.
- Leialtasun- eta lankidetzaren eginbeharra.
- Kontratazio-prozeduretako eta hautagaitzen ebaluazioko eraginkortasuna eta objektibotasuna.
- Interes-gatazka (ondare-interesak eta pertsonalak; erregaliak, opariak, zerbitzuak eta liberalitateak, etab.). Interes-gatazka: azalpena, eskakizunak eta aitorten-prozedurak.
- Konfidentzialtasun-eginbeharra. Informazio konfidentziala: tartean direnen azalpenak eta erantzukizunak.
- Balizko iruzur-jokabideen jakinarazpena.
- Kontu-ematea.
- Ez-betetzearen ondorioak.
- Erregaliak eta abegi-politika: tartean direnen azalpenak eta erantzukizunak.
- Balizko iruzurra jakinarazteko eskakizunak.

Gainera, iruzurrarekin lotura duen edozein auziren eguneratzeak egingo dira aldian behin, iruzurren gaineko ikerketen emaitzak barne hartuta.

9.4. IV. eranskina - Adierazleen katalogoa (bandera gorriak)

Bandera gorriak balizko iruzur baten alarma-seinaleak, aztarnak edo zantzuak dira. Bandera gorri batek ez du nahitaez esan nahi iruzurra dagoenik, baizik eta jarduera-eremu jakin batek arreta gehigarria behar duela, balizko iruzur bat ezeztatzeko edo baieztatzeko.

Jarraian, "Bandera Gorriak Egiatzatzeko Zerrenda" zerrendatzen da, tresna juridikoaren arabera sailkatuta eta, aldi berean, iruzurrak izan daitezkeen jardueren tipologiaren arabera sailkatuta.

Kontratazioan, bete beharreko zerrendako galderetan, kontuan hartu behar da kontratua zein fasetan dagoen, dela lizitazio- edo exekuzio-fasean.

Kontratuaren lizitazio-fasea

1. IRUZURRA KONTRATUETAN ETA KONTRATAZIO PUBLIKOAN

1.1. Ustelkeria, eroskeria eta legez kanpoko komisioak

DESKRIBAPENA:

Eroskeria eta legez kanpoko komisioa «baliozko gauzaren» bat ematean edo jasotzean datza, administrazio-egintza batean edo enpresa-erabaki batean eragiteko.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Gizarte-harreman estua dago enplegatu kontratatzaile baten eta zerbitzu-emaile edo hornitzaile baten artean.
- Agirietan jaso gabeko aldaketak kontratuetan, edo kontratu-aldaketak maiz, kontratuon balioa handitzeko.
- Enplegatu kontratatzailearen ondarea azalpenik gabe edo bat-batean handitzen da.
- Enplegatu kontratatzailearen batek kanpoko negozio ezkutu bat du.
- Kontratatistak legez kanpoko komisioak ordaintzeko ospea du sektorean.
- Enplegatu kontratatzailearen batek uko egin dio kontratazio publikoarekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Enplegatu kontratatzailearen batek ez du interes-gatazkaren adierazpenik aurkeztu edo bete.

1.2. Interes-gatazka

DESKRIBAPENA:

Erakunde kontratatistako langile batek kontratu batean ezkutuko finantza-interesen bat duenean, interes-gatazka sortzen da.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Enplegatu kontratatzailearen batek ez du interes-gatazkaren adierazpenik aurkeztu edo bete.

- Enplegatu kontratatzailearen batek aparteko negozio bat zuzentzen duela dirudi, edo lehiara aurkez daitezkeen sozietate batean lan egiten duten senideak ditu.
- Prozedura negoziatua aukeratzeko da, nahiz eta prozedura ireki bidez egin daitezkeen.
- Kontratatzailearen batek probetxua ateratzen dio azaldu gabeko edo ohiz kanpoko mesedekeria bati. Etengabe onartzen da lan garestia, kalitate eskasekoa, etab.
- Enplegatu kontratatzailearen batek uko egin dio kontratazio publikoarekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Sozializazioa dago kontratazioaz arduratzen den enplegatu baten eta zerbitzu edo produktuen hornitzaile baten artean.
- Kontratazioaz arduratzen den enplegatuaren aberastasunaren edo bizi-mailaren igoera ulertezina edo bat-batekoa.
- Lizitazioaren dokumentuak idazteaz arduratzen den pertsonak edo goi-mailako funtzionario batek kanpoko enpresa bat kontratatu nahi du dokumentazioa idazten laguntzeko, beharrezkoa ez bada ere.
- Kontratazio-organoko langilearen batek lehiaketan parte har dezakeen enpresa batentzat lan egin du, kontratazio-organon sartu aurretik.

1.3. Lizitatuaren baten alde moldatutako zehaztapenak eta baldintza-agiriak

DESKRIBAPENA:

Baldintza-agirik lizitatuaren jakin baten kualifikazioetara egokitutako zehaztapenak dituzte, edo lizitatuaren bakar batek bete ditzakeenak.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Eskaintza bakarra aurkeztu da edo lizitazioarako hautagai diren proposamenen kopurua ohi baino nabarmen txikiagoa da.
- Baldintza-agiritako zehaztapenak aurreko antzeko deialdietan baino nabarmen zorrotzagoak edo orokorragoak dira.
- Zehaztapenak ez dira ohikoak edo oso arrazoizkoak.
- Aparteko antzekotasuna dago prozeduraren baldintza-agiri gidarien eta kontratista irabazlearen produktu edo zerbitzuen artean.
- Beste lizitatuaren batzuen kexak daude.
- Hornitzaile berari adjudikazio asko egin zaizkio.
- Kontratatuaren eta lizitatuaren batzuen artean harreman pertsonalak daude.
- Botere adjudikatuaren marka jakin baten produktu bat definitzen du, produktu generiko baten ordez.

1.4. Kolusiozko lizitazioak

DESKRIBAPENA:

Eremu geografiko edo eskualde bateko edo industria-sektore jakin bateko kontratista batzuek konspiratu egiten dute lehiari aurre egiteko eta prezioak igotzeko, lizitaziorako kolusio-mekanismoen bidez.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Adjudikaziodunak lizitazaile galtzaileak azpikontratatzeko dituzte.
- Lizitazaile guztiek prezio altuak eskaintzen dituzte etengabe.
- Eskaintza irabazlea handiegia da aurreikusitako kostuekin, prezio publikoen zerrendekin, industriako antzeko obra edo zerbitzuekin edo merkatuko erreferentziako prezioekin alderatuta.
- Eskaintzen prezioak bat-batean jaisten dira lizitazaile berriek prozeduran parte hartzen dutenean.
- Adjudikaziodunak eskualdearen, lan motaren eta obra motaren arabera banatzen/txandatzeko dira.
- Ezohiko eskaintzen patroiak daude. Adibidez, eskaintzek beherapen-ehuneko zehatzak dituzte, eskaintza irabazlea prezio onargarrien atalasearen azpitik dago ozta-ozta, kontratuaren aurrekontura doitzen da eskaintza, eskaintzen prezioak altuegiak dira, antzekoegiak, oso desberdinak, zenbaki biribilak, osatugabeak, etab.

1.5. Datuak isilean ezagutaraztea

DESKRIBAPENA:

Kontratazioaz, proiektuaren diseinuaz edo eskaintzen ebaluazioaz arduratzen diren langileek informazioa isilean ezagutarazten dute, lizitazaile bati proposamen tekniko edo finantzario bat egiten laguntzeko.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Eskaintzaren bat behar baino lehenago ireki da.
- Eskaintza ekonomiko irabazlea hurrengoaren azpitik dago doi-doi.
- Lizitazio-prozeduren kontrola eskasa da; adibidez, epeak ez dira aplikatzen.
- Eskaintza berantiarra onartzen dira.
- Aurkeztutako azken eskaintza baxuena da.
- Eskaintza guztiak atzera botatzen dira, eta kontratua berriro ateratzen da lizitaziora.

1.6. Aurkeztutako eskaintzak manipulaztea

DESKRIBAPENA:

Kontratazio-langileek jasotako eskaintzak manipulatzeko dituzte, kontratista jakin bat hautatzeko delako ziurtatzeko (eskaintzak aldatuz, «galduz», zehaztapenetan ustez egindako akatsengatik baliogabetuz, etab.).

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Eskaintzak jaso ondoren aldatu izanaren zantzuak daude.
- Lizitatzaileren kexak daude.
- Kontrolik eza eta lizitazio-prozedura desegokiak daude.
- Akatsengatik eskaintzak baztertu dira.
- Zalantzazko arrazoiengatik baztertua izan den gaitutako lizitatzailereren bat dago.
- Prozedura ez da adjudikatu gabe utzi, eta berriro deitu da, nahiz eta eskatutako gutxienerako kopurua baino eskaintza gutxiago jaso.

1.7. Gastua zatitzea

DESKRIBAPENA:

Enplegatu kontratatzaileek erosketa bat bi eskaera edo kontratu gehiagotan banatzen dute, goimailako zuzendarien lehia edo berrikuspenak saihesteko.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Antzeko objektua duten bi erosketa edo gehiago ikusi dira, adjudikaziodun berari eginak, zuzenerako adjudikazio-prozedurak erabili ahal izateko onartutako mugen edo publizitate-atalaseen azpikoak.
- Lizitazioen publizitatea egiteko betebeharraren atalasearen azpitik ozta-ozta dauden erosketa sekuentzialak daude.
- Erosketak arrazoirik gabe bereiztea, adibidez, eskulanerako eta materialetarako kontratu bereziak, biak lizitazio irekiko atalaseen azpitik egonik.

1.8. Prezioak modu desegokian finkatzea

DESKRIBAPENA:

Kontratastak bere prezio-proposamenetan kostuei edo prezioak finkatzeari buruzko datu gaurkotuak, osoak eta zehatzak ezagutarazten ez dituenean gertatzen da prezio-finkatze desegokia, kontratua garestitzea dakarrena.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Kontratastaren batek uko egin dio kostuen egiaztagiriak aurkezteari, haiek entregatzea atzeratu du edo ez da aurkezteko gai izan.
- Kontratastaren batek dokumentazio desegokia edo osatugabea aurkeztu du.
- Prezioak finkatzeari buruzko informazioa zaharkitua dago.
- Prezioek altuak dirudite antzeko kontratuetako, prezio-zerrendetako edo sektoreko batez besteko prezioen aldean.

Kontratua gauzatzeko fasea

1.9. Gehigarritasun-printzipioa ez betetzea

DESKRIBAPENA:

Bi funtsen edo gehiagoren bidez finantzatzen da kontratua, irabazia edo gehiegizko finantzaketa eraginda.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Gehiegizkoa da eragiketen kofinantzaketa.
- Proiektu bera finantzatzen duten zenbait finantzatzaile daude.

1.10. Kontratuaren formalizazioa publiko egitea

DESKRIBAPENA:

Irregularitasunak egotea kontratuaren formalizazioan; ez da zehatz egokitzen lizitazio-baldintzetara edo adjudikazioaren baldintzak aldatzen dira.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Formalizatutako kontratuak adjudikazio-baldintzak aldatzen ditu.
- Arrazoirik gabeko berandutzeak daude kontratazio-organoak eta adjudikaziodunak kontratua sinatzeko garaian.
- Ez da argitaratu formalizazio-iragarkirik.

1.11. Kontratuen nahasketa

DESKRIBAPENA:

Antzeko zenbait eskaera dituen kontratista batek kostu berberak kargatzen ditu, eta gainfakturazioa eragiten du.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Antzeko fakturak aurkezten dira zeregin edo kontratu desberdinen esparruan.
- Kontratista berak denboraldi berean zeregin bat baino gehiagorengatik fakturatzen du.

1.12. Kostuak bidegabe lotzea

DESKRIBAPENA:

Kontratista batek iruzurra egiten du nahita, onargarriak edo arrazoizkoak ez diren edo kontratu bati zuzenean edo zeharka esleitu ezin zaizkion kostuak kargatuz. Lan-kostuak bidegabe kargatzeko aukera gehiago dago material-kostuak bidegabe kargatzeko baino; izan ere, teorikoki, langile baten lana edozein kontratutan karga daiteke.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Kontratuaren aurrerapenarekin bat ez datozen lan-kargak sartu dira.
- Ordu-tegi-fitxetan aldaketa nabariak daude.
- Gehiegizko edo ohiz kanpoko lan-kargak sartu dira.
- Ordu-tegi-fitxetan aldaketa nabariak daude.
- Ezinezkoa da ordu-fitxak aurkitzea.

- Material-kostu berak kontratu bati baino gehiagori egozten zaizkio.
- Zeharkako kostu gisa sartzen dira zuzeneko kostuak.

1.13. Kontratuaren zehaztapenak ez betetzea

DESKRIBAPENA:

Kontratuaren zehaztapenak betetzen ez dituzten eta bete dituzten itxura egiten duten kontratistek iruzurra egiten dute.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Kalitatea eta/edo emaitzak txarrak dira, eta erreklamazio asko daude.
- Egiaztapenen emaitzak ez datoz bat kontratuaren zehaztapenekin.
- Probak eta ikuskapenak ziurtatzen dituzten dokumentuak falta dira.
- Kontratistaren gastuen erregistroetan egiaztatu da, adibidez, ez dituela erosi obretarako behar diren materialak, ez daukala eta ez duela errentan hartu behar zen ekipamendua edo ez zuela behar besteko eskulanik lantokian.

1.14. Faktura faltsuak, puztuak edo bikoiztuak

DESKRIBAPENA:

Kontratista batek nahita aurkezten ditu faktura faltsuak, puztuak edo bikoiztuak, bere kontura jardunez edo langile kontratatzaileekin kolusioan, ustelkeriaren ondorioz.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Fakturatutako ondasunen edo zerbitzuen ordainagiriak falta dira.
- Fakturatutako ondasun edo zerbitzuen eskaera zalantzazkoa da edo ez dago.
- Fakturatutako ondasunak edo zerbitzuak ez daude inbentarioan, edo ezin da horien berri eman.
- Kontratistaren erregistroek ez dute jasotzen lana egin denik edo beharrezko diren kostuak egin direnik.
- Prezioak, zenbatekoak, artikuluen deskribapenak edo baldintzak gehiegizkoak dira, edo ez datoz bat kontratuaren objektuarekin, eskaerarekin, ordainagirien erregistroarekin, inbentarioarekin edo erabilera-erregistroekin.
- Zenbateko bereko faktura asko daude.
- Azpikontratazioak katean egin dira.
- Ordainketak eskudirutan egin dira.
- Ordainketak egin zaizkie paradisu fiskaletan inskribatutako enpresei.

1.15. Zerbitzu mamuen emailak

DESKRIBAPENA:

Kontralistek enpresa mamuak sortzen dituzte eskaintza osagarriak kolusioan aurkezteko, kostuak puzteko edo gezurrezko fakturak sortzeko.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Ez dira aurkitzen zerbitzu-hornitzaileen helbideak.
- Zerbitzu-hornitzailea ez da ageri enpresen direktorioetan, eta ezin da topatu Interneten, Googlen edo beste bilatzaile batzuetan, etab.
- Zerbitzu-emaileak aurkeztutako zerrendako helbideak edo telefono-zenbakiak faltsuak dira.
- Paradisu fiskal batean inskribatutako enpresa bat baliatzen da.

1.16. Produktuak ordezkatzeari

DESKRIBAPENA:

Kontratuan zehaztutako artikuluak kalitate apalagoko beste batzuekin ordezteko da, erosleak horren berri izan gabe.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Alde nabarmena dago zenbatetsitako kostuen eta materialen benetako kostuen artean.
- Produkturako espero zen itxura ez dator bat benetakoarekin.
- Ezohiko bilgarriak edo generikoak erabili dira. Ohikoak ez diren bilgarriak, koloreak edo marrazkiak, adibidez.
- Aldeak daude produktuen identifikazio-zenbakien eta argitaratutakoen, katalogoan daudenen edo zenbaki-sistemakoen artean.
- Funtzionamendu-probetan hautemandako akatsen kopurua batezbestekoa baino handiagoa da, ordezeko pieza goiztiarrak behar dira edo mantentze-lanen edo konponketen kostuak handiak dira.
- Betetze-ziurtagiriak kualifikatu gabeko edo ziurtatu gabeko pertsona batek sinatuta daude.
- Serie-zenbakiak ez dira ohikoak edo ezabatuta daude, eta/edo serie-zenbakiak ez datoz bat fabrikatzailearen legezko zenbaki-sistemarekin.
- Inbentarioan edo fakturan jasotako artikuluen edo deskribapenen zenbakiak ez datoz bat eskaeran aurreikusitakoekin.

1.17. Auditoria-aztarna galtzea

DESKRIBAPENA:

Erakundeak ez ditu betetzen Europako, Espainiako eta EAeko araudietan ezarritako betekizunak, auditoretza-aztarnari dagokionez.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Erakundeak alde batera utzi du auditoria-aztarna bermatzea ahalbidetuko duen eragiketarako behar den dokumentazioa.

- Kontratazioan ez da aipatzen eragiketaren ondoriozko gastuak dokumentatzeko modua.
- Dokumentuak gordetzeko betebeharra ez da bete.

2. IRUZURRA DIRULAGUNTZETAN EDO LAGUNTZETAN

2.1. Ustelkeria, eroskeria eta legez kanpoko komisioak

DESKRIBAPENA:

Eroskeria eta legez kanpoko komisioa «baliozko gauzaren» bat ematean edo jasotzean datza, administrazio-egintza batean edo enpresa-erabaki batean eragiteko.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Harreman sozial estua dago Ebaluazio Batzordeko kide baten eta laguntzaren edo dirulaguntzaren onuradun baten artean.
- Dirulaguntza ematen duen enplegatu batek uko egin dio dirulaguntzak edo laguntzak ematearekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Dirulaguntza ematen duen enplegatu baten ondarea azalpenik gabe edo bat-batean handitu da.
- Onuradunak legez kanpoko komisioak ordaintzeko ospea du sektorean.
- Dirulaguntza ematen duen enplegatu batek ez du interes-gatazkaren adierazpenik aurkeztu edo bete.

2.2. Interes-gatazka

DESKRIBAPENA:

Dirulaguntzak edo laguntzak ematen dituen erakundeko kide batek dirulaguntza batean ezkutaturako finantza-interesen bat duenean, interes-gatazka sortzen da.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Laguntza baten hartzailearen batek probetxua atera al dio azaldu gabeko edo ohiz kanpoko mesedekeria bati.
- Dirulaguntza ematen duen enplegatu batek aparteko negozio bat zuzentzen duela dirudi, edo lehiara aurkez daitekeen sozietate batean lan egiten duten senideak ditu.
- Dirulaguntza ematen duen enplegatu batek ez du interes-gatazkaren adierazpenik aurkeztu edo bete.
- Dirulaguntza ematen duen enplegatu batek uko egin dio dirulaguntzak edo laguntzak ematearekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Laguntzak emateaz arduratzen den enplegatuaren aberastasunaren edo bizi-mailaren igoera ulertezina edo bat-batekoa da.
- Deialdiko dokumentuak idazteaz arduratzen den pertsonak edo goi-mailako funtzionario batek kanpoko enpresa bat kontratatu nahi du dokumentazioa idazten laguntzeko, beharrezkoa ez bada ere.

2.3. Zehaztapen itunduak

DESKRIBAPENA:

Deialdiek laguntza-eskatzaile jakin baten kualifikazioetara egokitutako zehaztapenak dituzte, edo lizitatzailerak bakar batek bete ditzakeenak.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Eskatzaile bakar batek edo gutxi batzuek erantzun diote eskaintzen deialdiari.
- Beste eskatzaile batzuek erreklamazioak aurkeztu dituzte.
- Zehaztapenak aurreko antzeko deialdietan baino nabarmen zorrotzagoak edo orokorragoak dira.
- Zehaztapenak ez dira ohikoak edo oso arrazoizkoak.
- Onuradun berari emakida asko eman zaizkio.
- Emate-prozesuan zehar, harreman edo lotura pertsonalak daude laguntza ematen duten langileen eta eskatzaile batzuen artean.

2.4. Datuak isilean ezagutaraztea

DESKRIBAPENA:

Eskabideak emateaz edo ebaluatzeaz arduratzen diren langileek isilpeko informazioa filtratu dute eskatzaile bati mesede egiteko.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Lizitazio-prozeduren kontrola eskasa da. Adibidez, epeak ez dira aplikatzen.
- Epez kanpoko eskaerak onartzen dira.
- Emate-prozeduraz arduratzen ez den enplegatu batek ezohiko jokabidea du, eta prozeduraren inguruko informazioa behin eta berriz eskatzen du.
- Eskaera egiteko aldiaren, onuraduna posta elektronikoz edo beste bideren baten bidez komunikatu da ematearen ardura duten langileekin.

2.5. Aurkeztutako eskaintzak manipulaztea

DESKRIBAPENA:

Kontratazioko langileek jaso diren eskaerak manipulatzen dituzte, eskatzaile jakin bat hautatzen dela ziurtatzeko.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Eskaeraren bat baliogabetu da akatsak izateagatik.
- Baldintzak betetzen dituen eskatzaile bat baztertu da, zalantzako arrazoiak direla medio.
- Beste eskatzaile batzuek erreklamazioak aurkeztu dituzte.
- Emate-prozedurak prozedura eskas eta desegokien pean jartzen dira.

- Jasotako eskaerek, dokumentu ofizialek edo harrera-ziurtagiriek aldaketak jasan izanaren zantzuak dituzte.
- Ebaluazio-batzordeko kideek ez dute aurkeztutako eskaerak ebaluatzeko behar den ezagutzarik eta kide horiek pertsona bakar baten mende daude.

2.6. Gehigarritasun-printzipioa ez betetzea

DESKRIBAPENA:

Onuradunak funts bereko laguntzak jasotzen ditu, baina erakunde desberdinetatik, irabazia edo gehiegizko finantzaketa eraginda.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Deialdiaren oinarri arautzaileetan ez da adierazten estatu-laguntza denik, hala bada.
- Deialdiak ez du zehazten laguntza beste finantzaketa mota batzuekin bateraezina dela.
- Ez dago hirugarrenengandik jasotako finantzaketaren euskarri den dokumentaziorik.
- Onuradunak ez du gastu-kontrolik eragiketari egotzitako gastuak eta sarrerak identifikatzeko.
- Gehiegizkoa da eragiketen kofinantzaketa.
- Proiektu bera finantzatzen duten zenbait finantzatzaile daude.
- Hirugarrenek emandako finantzaketaren izaera finalista falta da, eta ez dago finantzaketa banatzeko irizpiderik.
- Onuradunak ez ditu kontrolatzen proiektuari esleitutako mugarriak eta/edo helburuak.

2.7. Kostuak bidegabe lotzea

DESKRIBAPENA:

Onuradun batek iruzurra egiten du nahita, onargarriak edo arrazoizkoak ez diren edo kontratu bati zuzenean edo zeharka esleitu ezin zaizkion kostuak kargatuz.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Proiektuaren aurrerapenarekin bat ez datozen lan-kargak sartu dira.
- Ordu-tegi-fitxetan aldaketa nabariak daude.
- Gehiegizko edo ohiz kanpoko lan-kargak sartu dira.
- Ezinezkoa da ordu-fitxak aurkitzea.
- Material-kostu berak proiektu bati baino gehiagori egotzi zaizkio.
- Zeharkako kostu gisa sartzen dira zuzeneko kostuak.

2.8. Prezioak modu desegokian finkatzea

DESKRIBAPENA:

Onuradunak bere prezio-proposamenetan kostuei edo prezioak finkatzeari buruzko datu gaurkotuak, osoak eta zehatzak ezagutarazten ez dituenean gertatzen da prezio-finkatze desegokia, kontratua garestitzea dakarrena.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Onuradunen batek uko egin dio kostuen egiaztagiriak aurkezteari, entregatzea atzeratzen du edo ez da aurkezteko gai izan.
- Onuradunen batek dokumentazio desegokia edo osatugabea aurkeztu du.
- Prezioak finkatzeari buruzko informazioa zaharkitua dago.
- Prezioek altuak dirudite antzeko kontratuetako, prezio-zerrendetako edo sektoreko batez besteko prezioen aldean.

2.9. Deialdiaren zehaztapenak ez betetzea

DESKRIBAPENA:

Deialdiaren zehaztapenak betetzen ez dituzten eta bete dituzten itxura egiten duten onuradunek iruzurra egiten dute.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Onuradunak ez ditu funtsak bideratu dirulaguntza-araudian ezarritako helburura.
- Kalitatea eta emaitzak txarrak dira, eta erreklamazio asko daude.
- Probak eta ikuskapenak ziurtatzen dituzten dokumentuak falta dira.
- Proben eta ikuskapenen emaitzak ez datoz bat proiektuaren zehaztapenekin.
- Onuradunaren gastuen erregistroetan egiaztatu da, adibidez, ez dituela erosi obretarako behar diren materialak, ez duela eta ez duela errentan hartu behar zen ekipamendua edo ez zuela behar besteko eskulanik lantokian.

2.10. Faktura faltsuak, puztuak edo bikoiztuak

DESKRIBAPENA:

Onuradun batek nahita aurkeztu ditu faktura faltsuak, puztuak edo bikoiztuak, bere kontura jardunez edo langile kontratatzaileekin kolusioan, ustelkeriaren ondorioz.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Fakturatutako ondasunen edo zerbitzuen ordainagiriak falta dira.
- Faktura batzuek zenbateko bera, faktura-zenbaki bera, data bera, etab., dute.
- Eskatzaileek adierazpen faltsuak aurkeztu dituzte eskabideetan, hala nola sinatutako aitortpenak, finantza-txostenak, konpromisoak eta abar.
- Fakturatutako ondasunak edo zerbitzuak ez daude inbentarioan, edo ezin da horien berri eman.

- Fakturatutako ondasun edo zerbitzuen eskaera zalantzakoa da edo ez dago.
- Onuradunaren erregistroek ez dute jasotzen lana egin denik edo beharrezko diren kostuak egin direnik.
- Prezioak, zenbatekoak, artikuluen deskribapenak edo baldintzak gehiegizkoak dira, edo ez datoz bat emakidaren objektuarekin, eskaerarekin, ordainagirien erregistroarekin, inbentarioarekin edo erabilera-erregistroekin.
- Azpikontratazioak katean egin dira.
- Ordainketak eskudirutan egin dira.
- Ordainketak egin zaizkie paradisu fiskaletan inskribatutako enpresei.

2.11. Lehia mugatzea

DESKRIBAPENA:

Erakundeak ez ditu behar adina zabaldu oinarri arautzaileak edo deialdia; ez dira argi zehaztu laguntzen onuradunek edo hartzaileek bete beharreko baldintzak; ez dira errespetatu ezarritako epeak edo ez dira argitaratu aplikatzekoak diren baremoak.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Oinarri arautzaileak eta deialdia ez dira zabaldu legez eskatutako publizitate- eta gardentasun-printzipioak betetz.
- Onuradunek bete behar dituzten baldintzak ez dira argi geratu.
- Ustezko epez kanpoko entregagatik eskabideak atzera bota dira epe barruan aurkeztu arren, edo epez kanpo aurkeztutakoak onartu egin dira.
- Deialdia arautzen duten oinarrietan, ez dira jaso eskaerak baloratzeko baremoak.
- Onuradunak edo laguntzen hartzaileak ez du bete lehia bermatzeko betebeharra, hornitzaileekin negoziatzea beharrezkoa denean.

2.12. Auditoria-aztarna galtzea

DESKRIBAPENA:

Erakundeak ez ditu betetzen Europako, Espainiako eta EAeko araudietan ezarritako betekizunak, auditoretza-aztarnari dagokionez.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Erakundeak alde batera utzi du auditoria-aztarna bermatzea ahalbidetuko duen eragiketarako behar den dokumentazioa.
- Deialdian ez da aipatzen eragiketaren ondoriozko gastuak dokumentatzeko modua.
- Deialdian gastu hautagarrien eta dokumentuak kontsignatzeko betebeharraren definizio argi eta zehatza falta da.
- Proiektuetan kostuak kalkulatzeko aplikatu behar den metodoa falta da deialdian.

3. IRUZURRA HITZARMENETAN

3.1. Hitzarmenak kontratuen berezko prestazioak ditu edukizat

DESKRIBAPENA:

Hitzarmenak egitea kontratazio-prozedura saihesteko edo hitzarmena egitean tresna juridiko horren baliozkotasun-baldintzak saihestea.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Hitzarmenak berez kontratuei dagozkien prestazioak ditu edukizat.
- Hitzarmenaren edukiak eskumenaren titulartasuna lagatzea dakar berekin.
- Hitzarmenak egiten dira erakunde pribatuekin.

3.2. Hitzarmenaren legezko baldintzak edo prozedura ez betetzea

DESKRIBAPENA:

Hitzarmen bat egitea horretarako legez ezarritako prozedura bete gabe, edo legezko izapide edo betekizun jakin batzuk bete gabe.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Nahitaezko izapideak falta dira.
- Lege-eskumenik eza dago.
- Hitzarmenaren xede diren jarduketak egin gabe utzi dira bidezko arrazoirik gabe, edo finantza-ekarpenak ez dira likidatu.
- Hitzarmenen publizitate- eta komunikazio-betebeharrak ez dira bete.
- Finantza-ekarpenak ez dira egokiak.

3.3. Interes-gatazkak

DESKRIBAPENA:

Hitzarmena onartu edo sinatzen duten langileek beren eginkizunak modu objektiboan ez betetzeko arriskua dago, arrazoi hauengatik: familia, afektibitatea, kidetasun politiko edo nazionala, interes ekonomikoa edo interes pertsonaleko beste edozein arrazoi zuzen edo zeharkakoa.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Behin eta berriz egiten dira hitzarmen jakin batzuk.
- Hitzarmena sinatu duten alderdien artean loturaren bat iradokitzen duten zantzuak daude.

3.4. Entitate laguntzaileak hautatzean lehia mugatzea

DESKRIBAPENA:

Dirulaguntza bat bideratzeko zuzenbide pribatuko erakunde laguntzaileekin egindako hitzarmenean, erakunde laguntzailea ez da hautatu ezarritako printzipioei jarraituz.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Zuzenbide pribatuko erakunde laguntzailea hautatzean, lehia bermatzeko betebeharra eta aplikatu beharreko gainerako printzipioak urratu dira.

3.5. Lehia mugatzea, hitzarmena hirugarrenek gauzatzen dutenean

DESKRIBAPENA:

Dirulaguntza bat bideratzeko erakunde laguntzaileekin egindako hitzarmenetan, erakunde laguntzaileak ez du bermatzen hornitzaileak norgehiagoka-prozesu baten bidez hautatuko direla.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Ez da bete lehia bermatzeko betebeharra lankidetzeta-hitzarmena hirugarrenek gauzatu dutenean.

3.6. Auditoria-aztarna galtzea

DESKRIBAPENA:

Erakundeak ez ditu betetzen Europako, Espainiako eta EAeko araudietan ezarritako betekizunak, auditoretza-aztarnari dagokionez.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Auditoria-aztarnarik ez dago.
- Ez da bete dokumentuak gordetzeko betebeharra.
- Ez da bermatu azken hartzaileek Europako erakundeen kontrolen pean jartzeko duten konpromisoa.

4. IRUZURRA BITARTEKO PROPIOEI EMANDAKO ENKARGUETAN

4.1. Bitarteko propioei egindako enkargua ez justifikatzea

DESKRIBAPENA:

Ez da justifikatu bitarteko propioari enkargua ematea irtenbiderik egokiena eta efizienteena denik finantza-kudeaketa onaren eta legezketasunaren ikuspegitik.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Bitarteko propioetara jotzeko eman diren arrazoiak ez dira nahikoak.
- Bete beharreko premien eta enkarguaren xedearen justifikazioa falta da.
- Ez dago prozedurarik enkarguak bitarteko propioei egiteko.
- Antzeko jarduerak edo urtero errepikatzen diren jarduera errepikariak aldi berean egin dira bitarteko propioekin.
- Argi eta garbi infraerabiltzen diren baliabideak daude, enkarguan barne hartutako proiektuetara edo jarduketetara bidera litezkeenak.

4.2. Bitarteko propioak ez betetzea bitarteko propio izateko baldintzak

DESKRIBAPENA:

Bitarteko propio pertsonifikatua izateko baldintzak ez dira betetzen, edo bitarteko propioak izaera hori galdu du.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Bitarteko propioak ez ditu betetzen bitarteko propio izateko baldintzak.
- Bitarteko propioa ez dago argitaratua Kontratazio Plataforman.

4.3. Justifikaziorik eza bitarteko propioaren hautaketan

DESKRIBAPENA:

Ez da behar bezala justifikatu zergatik hautatu den enkargua egin zaion bitarteko propioa, eta horrek eragina izan dezake enkargua ez betetzeko, finantza-kudeaketa desegokia egiteko, iruzurra egiteko edo ustelkeria egiteko arriskuan baldin eta bitarteko propio desegoki bat aukeratu bada.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Bitarteko propioen zerrenda eguneratua falta da.
- Enkargua egin zaion bitarteko propioaren xedea ez dator bat agindutako jarduera motarekin.
- Enkargu-kontzentrazioa dago bitarteko propio batean.

4.4. Tarifak eta kostuak oker aplikatzea

DESKRIBAPENA:

Aurrekontua egitean tarifak eta kostuak ez justifikatzea edo oker aplikatzea.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Aurrekontua egitean aplikatutako tarifak oker aplikatu dira.
- BEZa aplikatu zaie zerga horri lotu gabeko eragiketei.
- Ez dago organo eskudunak onartutako tarifarik edo tarifak ez daude eguneratuta.
- Aurrekontua egitean, tarifak aplikatzen zaizkien unitateen zenbatespen okerra egin da.
- Azpikontratutako jarduerak ez dira konpentsatu.

4.5. Azpikontratazio-mugak ez betetzea eta lehia mugatzea

DESKRIBAPENA:

Bitarteko propioak egindako azpikontratazioak ez ditu betetzen SPKLren 32.7 artikuluan ezarritako baldintzak, eta horrek lehia mugatzea eragin dezake, lizitazio publiko bat egin beharrean bitarteko propioari egin baitzaio enkargua.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Bitarteko propioak egindako azpikontratazioaren berri ez zaio eman enkargua egin duen erakundeari.
- Azpikontratutako jarduerak enkarguaren % 50eko muga gainditu dute.
- Azpikontratutako prezioak tarifa aplikagarria gainditu du.
- Bitarteko propioak kostu errealean fakturatu ez dituen prezio baxu nabarmenak lortu ditu lizitazio-prozeduran.
- Bitarteko propioak beti hornitzaile berberak azpikontratatu dituzte.

4.6. Enkarguaren objektua diren prestazioak osorik edo zati batean ez betetzea

DESKRIBAPENA:

Produktuak edo zerbitzuak ez dira osorik entregatu eta/edo ez dute espero zen kalitatea; justifikatu gabeko atzerapenak izan dituzte eta/edo ez dute aurreikusitako administrazio-premia asebetetzen.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Justifikaziorik gabeko atzerapenak daude entrega-epeetan.
- Produktu guztiak entregatzea falta da edo ez da zerbitzua eman.
- Esperotako kalitatea erdietsi ez duten produktuak edo zerbitzuak daude.
- Enkarguaren prestazioak ez daude egokituta ase beharreko premia administratibora.

4.7. Auditoria-aztarna galtzea

DESKRIBAPENA:

Erakundeak ez ditu betetzen Europako, Espainiako eta EAeko araudietan ezarritako betekizunak, auditoretza-aztarnari dagokionez.

IRUZURRAREN ADIERAZLEAK:

- Auditoria-aztarnarik ez dago.
- Dokumentuak kontserbatzeko betebeharra urratu da.
- Ez da bermatu azken hartzaileek Europako erakundeen kontrolen pean jartzeko duten konpromisoa.

BANDERA GORRIAK EGIAZTATZEKO ZERRENDA

Prozedura (espedientearen identifikazioa)

Betetze-data.

Bandera gorriaren deskribapena	Erakundeak definitutako bandera gorrietarik bat detektatu da prozeduran.			Oharrak	Hartutako edo hartu beharreko neurriak
	Bai	Ez	Ez dagokio		

Inprimakia bete duenaren izen-abizenak eta lanpostua

Sin.:

9.5. V. eranskina - Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA)

Azpiproiektua: (zenbakia eta izena)

Tresna juridikoa

Espedientea (zenbakia eta izena):

Onuradunaren izena, abizenak eta IFZ:

Kargua:

Izen-abizenak:

IFZ:

Goian aipatutako prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, behean sinatzen duenak/dutenek, kudeaketa- edo betearazpen-prozesuan parte hartzen duen/duten aldetik, honako hau adierazten du/dute:

Lehenengoa. Honako honen berri dudala adierazten dut:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 EB, Euratom Erregelamenduaren (EBren finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua («Interes-gatazka») ezartzen du «interes-gatazka egongo dela funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidetasun politikoa edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».
2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehiaren distorsio oro saihestea, prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatzailerik guztientzat tratua berdina dela bermatzeko.
3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea») ezartzen du prozeduran esku hartzetik abstenituko direla «administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean», zehazki, egoera hauetako batean:
 - a. Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
 - b. Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta gotea aholkularitza, ordezkarietza edo mandataritzarako

- c. Aurreko letran aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
- d. Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.
- e. Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.

Bigarrena. Honako hau adierazten dut:

1. Ez dago/daude EBren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan interes-gatazkatzat sailkatzen diren egoeretako ezeinetan, eta ez dago/daude Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan ezartzen diren eta prozeduran eragina izan dezaketen abstentziko arrazoietako ezeinen mende.

Hirugarrena. Honako hau adierazten dut:

1. Interes-gatazken egoera oro edo egoera hori eragin duen edo dezakeen abstentzio-kausa oro kontratazio-organoari/hautaketa-organoari luzapenik gabe jakinarazteko konpromisoa hartzen du/dute.
2. Konfidentziasunez tratatuko ditu prozedura horien esparruan garatzen diren gaiak eta dokumentazioa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 133. artikuluan ezarritako betebeharren esparruan.

Laugarrena. Honako hau adierazten dut:

1. Badakit interes-gatazkarik ez daukadala adierazteko aurkeztu dudan agiria faltsua dela frogatzen bada, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina-, administrazio- eta justizia-ondorioak izango ditudala.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NAN)

9.6. VI. eranskina - Balizko interes-gatazka prebenitu, detektatu eta kudeatzeko dokumentua

Europako Batzordeak, 2021/C 121/01 Komunikazioaren bidez, interes-gatazka Finantza Erregelamenduaren arabera ekidin eta kudeatzeko orientabideak ematen ditu (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 EB Euratom Erregelamendua, 2018ko uztailaren 18koa, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatzen dakizkiokeen finantza-arauei buruzkoa). Hauxe xedatzen du komunikazioak:

Honako hauek dira interes-gatazkan inplikaturik egon daitezkeen eragileak:

- Kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten enplegatu publikoak eta beste agente batzuk, baldin eta eginkizun horietako bat/batzuk eskuordetu bazai(zki)e.
- Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak, haien jarduketak funtsekin finantzatzen badira eta beraien interesen alde jardun badezakete, baina EBren finantza-interesen aurka, interes-gatazka baten esparruan.

Interes-gatazka eragingo lukeen egoerari erreparatuta, honako hauek bereiz daitezke:

- **Itxurazko interes-gatazka:** enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuak arriskuan jar dezaketenean bere eginkizunak edo betebeharrak objektiboki betetzea, baina, azkenean, ez dagoenean lotura identifikagarri eta indibidualik pertsonaren jokabidearen, jarreraren edo harremanen alderdi zehatzekin (edo alderdi horietan eraginik ez duenean).
- Balizko interes-gatazka: enplegatu publiko edo onuradun batek halako interes pribatuak dituztenean sortzen da, baldin eta interes horiek interes-gatazka sor badezakete, etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar izanez gero.
- **Benetako interes-gatazka:** enplegatu publiko baten betebeharrak publikoaren eta interes pribatuen arteko gatazka dakar, edo enplegatu publikoak interes pertsonalak ditu, eta interes horiek eragin bidegabea izan dezakete bere betebeharrak eta erantzukizun ofizialetan. Onuradun baten kasuan, gatazka bat sortuko litzateke funtsen laguntza eskatzean hartutako betebeharrak eta interes pribatuen artean, bidegabe eragin badezakete betebeharrak horiek betetzean.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamendua, 2021eko otsailaren 12koak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, xedatzen du estatu kideek neurri egoki guztiak hartuko dituztela Batasunaren finantza-interesak babesteko eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatutako neurrietarako funtsen erabilera Batasunean nahiz kasuan kasuko estatuan aplikatzeko den zuzenbidearen arabera dela zaintzeko, batik bat iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazka prebenitu, detektatu eta zuzentzeko.

Bestalde, HFP/1030/2021 Aginduak, irailaren 29koak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzeak, 6. artikuluan heldzen dio iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazka prebenitu, detektatu eta zuzentzeko mekanismoak indartzeari, eta interes-gatazkei aurre egiteko prozedura bat izateko betebeharrak ezartzen du, baita Interes Gatazkarik

Ezaren Adierazpena (IGEA) betetzeko ere, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko prozedurei dagokienez. Aurreko arauetan xedatzen dena aplikatuta egin da agiri hau, interes-gatazkako egoerak ekiditeko hartu beharreko neurriak zehazteko, eta egoera horiek detektatu eta kudeatzeko, halakorik badago.

Espainiak arauetan ere jaso dira interes-gatazkako egoerak. Adibidez, hauetan:

1. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: 64., 71. eta 336. artikulua.
2. 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa: 8. eta 13. artikulua.

Hartutako prebentzio-neurria aski ez izatea gerta daitekeenez, interes-gatazkak detektatzeko era ezarri behar da. Adierazpena (IGEA), bere horretan ez litzateke aski; izan ere, ukitutako pertsonen inguruabarrak prozedurak aurrera egin ahala alda litezke.

- A. Balizko interes-gatazkak ukitutako pertsonak hierarkian gorago duenari jakinaraztea (Finantza Erregelamenduaren 61. artikulua). - 47 - SEEPa egikaritzeko prozedura batean parte hartzen duen langileren bat tartean den interes-gatazkaren arriskua badago, pertsona horrek auzia hierarkian gorago duenaren esku utziko du. Kontratazio-prozedura batean edo laguntzak emateko batean (edo bestelako batean) balizko interes-gatazkaren baten berri badu pertsona edo entitateren batek, orduan, berehala emango diote horren berri kontratazio-organoari edo laguntza ematen duen organoari.
- B. Hasierako adierazpena aurkeztu ondoren sortutakoa bada interes-gatazka, jakin bezain laster adierazi beharko da, prozeduran parte hartzeari utziko zaio eta kasua hierarkian gorago dagoenaren esku utziko da (horrek ez du halabeharrez esan nahi hasierako adierazpena gezurrezkoa zela). A) eta B) letretan deskribatutako kasu guztietan, ukitutako pertsonak edo balizko interes-gatazkaren berri duenak hierarkian gorago duena jakinaren gainean jarriko du, eta horrek aztertuko ditu egitateak ukitutako pertsonarekin, egoera argitzeko eta idatziz zehazteko interes-gatazkako egoera dela. Hala bada, beharrezko diren neurriak hartuko ditu, eta, hala badagokio, ukitutako pertsonari eskatuko dio prozeduratik apartatzeko, edo, beharrezkoa bada, berak apartatuko du enplegatu publikoa, errekusatuta. Kontratuen adjudikazio-prozeduran edo laguntzak emateko prozeduran parte hartzen dutenek erabakiak hartzeko prozesuan modu bidegabean eragiteko edo informazio konfidentziala eskuratzeko ahaleginak egin dituztela jakinarazi bazaio hierarkian gorago dagoenari, eta horren agiri-frogak badaude, egoera kontratazio-organoari edo organo emaileari jakinaraziko zaio, dagozkion neurriak har ditzan, indarreko araudiari jarraikiz.
- C. Zer urrats egin interes-gatazka detektatu bada behin eragina izan ondoren: balizko iruzurrerako aurreikusitako prozedura aplikatuko da. Egitateak dokumentatu, eta egoeraren berri emango zaio kudeaketa-kontrolako eginkizunak dituen unitateari, modu objektiboan aztertu, eta beharrezko diren neurriak har ditzan. Hala badagokio, egiteak eta hartutako neurriak erakunde erabakitzaileari jakinaraziko zaizkio, edo jarduketak gauzatzeko agindu zaion erakunde betearazleari; kasu horretan, erakunde betearazleak informatuko du erakunde erabakitzailea. Erakunde horrek agintaritza arduradunari gertatutakoaren berri emango dio, eta hark egokitzen jotzen duen informazio osagarria eskatu ahal izango du, jarraipena egiteko eta kontrol-agintaritza informatzeko.

9.7. VII. eranskina.- Kudeaketa-aitorpena ordainketa-eskaeran

XXXX(e)(a)n, zentro honek adierazten du ezen funtsak aurreikusitako helburuetarako erabili direla eta arau aplikagarri guztien arabera kudeatu direla, eta, bereziki, interes-gatazken, iruzurraren, ustelkeriaren eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik eta Batasunaren beste programa batzuetatik jasotako finantzaketa bikoitzaren prebentzioari buruzko arauen arabera eta finantza-kudeaketa onaren printzipioarekin bat etorritik. Era berean, adierazten du txostenean jasotako informazioa, mugarrak eta helburuak betetzeari dagokiona, egiazkoa dela, eta berresten du ez direla ezeztatu aurretik behar bezala betetako mugari eta helburuekin lotutako neurriak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Erregelamenduaren 24. artikulua 3. apartatua ezarritakoari jarraituz.

9.8. VIII. eranskina.- Kalte Nabarmenik Ez Egiteko Printzipioaren Autoebaluazioa – DNSH

• JARDUKETA/ERAGIKETA:

XXXXXXXX

• ERAKUNDE KUDEATZAILEA:

XXXXXXXX

• DATA:

XXXX/XX/XX

JARDUKETA/ERAGIKETAREN DESKRIBAPENA

XXXXXXXX

KALTE NABARMENIK EZ EGITEKO PRINTZIOAREN (DNSH) AUTOEBALUAZIO-ZERRENDA

1. zatia: Kudeaketa-organoak sei ingurumen-helburuak iragazi behar ditu, ebaluazio sakon bat behar dutenak identifikatzeko. Adierazi, neurri/proiektu/azpiproiekturako, taxonomia-erregelamenduaren 17. artikulua definitzen dituen ingurumen-helburu hauetatik zeinek («ingurumen-helburuei kalte nabarmena») eskatzen duen ebaluazio sakon bat, dagokion neurri/proiektu/azpiproiektuaren ingurumenari kalte nabarmenik ez egiteko printzipioaren arabera:

Adierazi ingurumen-helburu hauetatik zeinek eskatzen duen neurriaren DNSH printzipioaren arabera ebaluazio sakon bat.	Bai	Ez	«Ez» hautatu baduzu, azaldu arrazoiak
Klima-aldaketa arintzea ⁽¹⁾			
Klima-aldaketara egokitzea ⁽²⁾			
Ur eta itsas baliabideak modu jasangarrian erabiltzea eta babestea ⁽³⁾			
Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne ⁽⁴⁾			
Atmosferako, uretako edo lurzoruko kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea ⁽⁵⁾			
Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratztea ⁽⁶⁾			

⁽¹⁾ Jarduera batek **klima-aldaketa arintzeari** kalte nabarmena eragiten diola ulertuko da, baldin eta berotegi-efektuko gasen (BEG) emisio handiak eragiten baditu.

⁽²⁾ Jarduera batek **klima-aldaketara egokitzeari** kalte nabarmena eragiten diola ulertuko da, baldin eta gaur egungo klima-baldintzen eta etorkizunean aurreikusitakoen kontrako eraginak handitzea eragiten badu jardueran edo pertsonengan, naturan edo aktiboetan.

⁽³⁾ Jarduera batek **ur eta itsasoko baliabideak modu jasangarrian erabiltzea eta babesteari** kalte nabarmena eragiten diola ulertuko da, baldin eta ur-masen egoera onaren edo potentzial ekologiko onaren (lurrazalekoak eta lurpekoak barne) eta itsasoko uren egoera ekologiko onaren kalterako bada.

⁽⁴⁾ Jarduera batek **ekonomia zirkularri (hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne)** kalte nabarmena eragiten diola ulertuko da, baldin eta materialen erabileran edo natura-baliabideen zuzeneko edo zeharkako erabileran efizientziarik ez handiak eragiten baditu; baldin eta hondakinen sorrera, errausketa edo deuseztatpena nabarmen areagotzen badu; edo baldin eta hondakinak epe luzera ezabatzeak ingurumenari epe luzera kalte nabarmena eragin badiezaioke.

⁽⁵⁾ Jarduera batek **atmosferako, uretako edo lurzoruko kutsadura prebenitzeari eta kontrolatzeari** kalte nabarmena eragiten diola ulertuko da, baldin eta **atmosfera, uretara edo lurzorura** kutsatzaileen emisioak edo isuriak nabarmen handitzea eragiten badu.

⁽⁶⁾ Jarduera batek **biodibertsitatea eta ekosistemak babesteari eta lehengoratzeari** kalte nabarmena eragiten diola ulertuko da, baldin eta neurri handi batean ekosistemen baldintza onen eta erresilientziaren kalterako denean, edo habitaten eta espezieen kontserbazio-egoeraren kalterako denean –batez ere Batasunerako interesgarriak direnak–.

2. 2. zatia: Kudeaketa-organoak ebaluazio sakon bat egin behar du, hala eskatzen duten ingurumen-helburuen kalte nabarmenik ez egiteko printzipioaren arabera. Neurri/proiektu/azpiproiektu bakoitzerako, erantzun galdera hau 1. zatian ebaluazio sakon bat behar zutela adierazi zenuen ingurumen-helburu horietarako:

Galderak	Ez	Justifikazio sakona
<i>Klima-aldaketa arintzea:</i> Uste da neurriak berotegi-efektuko gasen emisio asko sortuko dituela?		
<i>Egokitzapena klima-aldaketara:</i> Espero al da neurriak gaur egungo klima-baldintzen eta etorkizunean aurreikusitako kontrako eraginak handitzea neurrian bertan, edo pertsonengan, naturan edo aktiboetan?		
Ur eta itsas baliabideak modu jasangarrian erabiltzea eta babestea: Uste al da neurria kaltegarria izatea: (i) ur-masen egoera onerako edo potentzial ekologiko onerako, lurrazalekoak eta lurpekoak barne; edo (ii) itsas uren ingurumen-egoera onerako?		
Ekonomia zirkularrerako trantsizioa, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne: Uste al da neurriak (i) hondakinen sorrera, errausketa edo deuseztapena nabarmen handituko duela, birziklatu ezin diren hondakin arriskutsuen errausketa izan ezik; edo (ii) bizi-zikloaren edozein fasetan natura-baliabideen zuzeneko edo zeharkako erabileran efizientziarik ez handiak sortuko dituela, neurri egokiek minimizatuko ez direnak; edo (iii) ekonomia zirkularrari dagokionez, kalte nabarmena eta epe luzerakoa eragingo duela ingurumenerako?		
<i>Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola:</i> Espero al da neurriak aireratutako edo uretara edo lurzorura isuritako kutsatzaileak nabarmen handitzea?		
Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta leheneratzea: Uste al da neurriak (i) ekosistemen baldintza onen eta erresilientziaren kalterako izango dela neurri handi batean; edo (ii) habitaten eta espezieen kontserbazio-egoeraren kalterako izango dela, bereziki Batasunerako interesgarriak diren kalterako?		

9.9. IX. eranskina - Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenaren gutxieneko edukia

Azpiproiektua: (zenbakia eta izena)

Tresna juridikoa

Espedientea (zenbakia eta izena):

Onuradunaren izena, abizenak eta IFZ:

Kargua:

Izen-abizenak:

IFZ:

Lehenago aipatutako kontratazio/dirulaguntzaren prozeduran inpartzialtasuna bermatzeko, sinatzaileak/sinatzaileek, espedientea prestatu eta izapidetzeko prozesuan parte-hartzaile den/diren aldetik, honako hau adierazi nahi du/dute:

Lehenengoa.

Hauk ezagutzen ditu/dituzte:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 EB, Euratom Erregelamenduaren (EBren finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua («Interes-gatazka») ezartzen du «interes-gatazka egongo dela funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kideetasun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».

2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, honela definitzen du interes-gatazka 64. artikuluan («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa»): «kontratazio-organoarentzat lan egiten duten eta aldi berean lizitazio-prozeduran parte-hartze bat izan dezaketen edo haren emaitzan eragina izan dezaketen langileen edozein egoera, lizitazio-prozeduraren testuinguruan haien inpartzialtasuna edo independentzia itxura batean zalantzan jar dezakeena interes finantzario, ekonomiko edo pertsonala zuzenean edo zeharka izateagatik».

3. 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuak honako hau ezartzen du: «Interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizatua aplikatuko zaie erakunde erabakitzaileen, betearazleen eta instrumentalen zerbitzura dauden enplegatu publikoei eta gainerako langileei, baldin eta banaka edo kide anitzeko organoetako kide gisa parte hartzen badute deskribatutako prozeduretan, kontratuak adjudikatze edo dirulaguntzak emateko prozeduretan».

4. Aipatutako ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuak honako hau ezartzen du:

- «Tresna informatikoaren bidez, familia-harreman edo sozietate-lotura zuzenekoak edo zeharkakoak aztertuko dira, hain zuzen, aurreko apartatuan aipatzen diren pertsonen eta

prozedura bakoitzeko parte-hartzaileen artean interes-gatazka sor dezakeen interes pertsonal edo ekonomikoa eduki dezaketenak».

– «Harremanak edo loturak identifikatzeko, tresnak, besteak beste, otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d).iii) artikuluan aipatzen diren pertsona juridikoen titulartasun errealeko datuak jasoko ditu, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datu baseetan daudenak, bai eta notarioen eta erregistratzaileen elkargoekin sinatutako hitzarmenen bidez lortutakoak ere».

Bigarrena.

Adierazpen hau sinatzeko unean, eta eskura duen/duten informazioaren arabera, ez dago/daude interes-gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren laugarren apartatuan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak lizitzeko/emateko prozeduran eragina izan dezakeenik.

Hirugarrena.

Abian den prozeduraren edozein unetan, ezagutu ditzakeen/ditzaketen eta gerta daitezkeen interes-gatazken berri emango diela/dietela ebaluazio-batzordeari/kontratazio-organoari, atzerapenik gabe.

Laugarrena.

Badaki Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen ondorio diziplinarioei, administratiboei eta judizialei aurre egin beharko diela.

9.10. X. eranskina - Interes-gatazkarik eza berresteko eredia

Azpiproiektua: (zenbakia eta izena)

Tresna juridikoa

Espedientea (zenbakia eta izena):

Onuradunaren izena, abizenak eta IFZ:

Kargua:

Izen-abizenak:

IFZ:

Interes-gatazka egoteko arriskua aztertuta (MINERVA tresna informatikoaren bidez), urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan ezarritako baldintzetan (agindu horrek arautzen du Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko prozeduretan interes-gatazka izateko arriskua sistematikoki nola aztertu, eta 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarria aplikatuz eman zen), eta bandera gorri bat detektatuta (bandera gorriaren deskribapena, bandera hori jarrarazi duten eskatzaileen zerrenda), berriro diot ez nagoela prozeduran nire jarduketa objektiboa kolokan jar dezakeen interes-gatazka eragin dezakeen inongo egoeratan.

9.11. XI eranskina - Lehiakide askoko dirulaguntzak emateko prozeduretan, interes-gatazkaren arriskua aztertzeko hartuko diren eskaerak hautatzeko arauak

Lehiakide askoko dirulaguntzen kasuan (ehun eskaera baino gehiago), interes-gatazka izateko arriskurik baden jakiteko azterketa honela egingo da, oinarri arautzaileen aginduak edo dirulaguntzak emateko deialdi zehatzak ezartzen dutenetik abiatuta:

A) Ez dago aukerarik azkenean emandako dirulaguntza bakar bat ere 10.000 eurotik gorakoa izateko. Kasu horretan, eragiketaren organo arduradunak bi aukera izango ditu: eskatzaile guztientzako interes-gatazkaren arriskuaren analisisa aplikatzea, edo ehun eskaera hautatzea, haiek denak egiaztatzeke, honela:

1. Eskabide guztiak sarrera-egunaren eta -orduaren arabera ordenatuko dira.
2. Eskabide kopuru osoa 100ez zatituko da egiaztatu beharreko eskabideen hautaketa zehaztuko duen tarte heina lortzeko, eta emaitza zenbaki oso txikiagora biribilduko da, dezimalik egonez gero.
3. Lehenengo eskaera hautatuko da, eta, ondoren, lortutako tarte-heina ondoz ondo batzearen ondorioz ateratako ordena betetzen duten eskaerak, ehun eskaeretara hautatu arte. Eragiketaren arduradunak hautatutako eskatzaileei buruzko auditoria-aztarna mantendu beharko du egiaztapena egiteko, eta behar bezala dokumentatu beharko du hautaketa hori egiteko zein prozesuri jarraitu dion.

Sistemaren aplikazioa errazte aldera, hona hemen adibidea: demagun 3.532 eskaera aurkeztu zirela, ba zenbaki hori 100ez zatitu beharko dugu. 35,32 da emaitza. Emaitza ez denez zenbaki osoa, beheko zenbaki osora biribilduko litzateke, kasu honetan, 35. Hala, honako eskaera hauek hautatuko dira: 1. eskaera, 36. eskaera, 71. eskaera eta 106. eskaera, hurrenez hurren, 100 eskaera hautatu arte.

B) Gerta liteke deialdi jakin baten kargura azkenean emandako dirulaguntzen bat 10.000 eurotik gorakoa izatea: kasu horretan, eskaeren % 100 aztertuko da, eskaera bakoitzari azkenean emango zaion zenbatekoa edozein dela ere.

9.12. Termino eta definizio nagusien glosarioa.

GLOSARIOA

EAO: Estatuko Administrazio Orokorra.

IG: Interes-gatazka.

FKB: Funtzen Koordinazio Batzordea.

IGEA: Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena

EKAB: Europako kontratazio-dokumentu bakarra.

DNSH: *Do No Significant Harm*.

KF: Kohesio Funtsa.

EGEF: Eskualde Garapeneko Europako Funtsa.

EGIF: Europako Gizarte Funtsa.

BEG: Berotegi Efectuko Gasak.

IGAE: Estatuaren Administrazioko Kontu-hartzailletza Nagusia.

SEM: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa.

HFP Agindua: Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Agindua

OLAF: Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoa.

SEEP: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana.

SNCA: Espainiako Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzua.

EBFT: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu.

EB: Europar Batasuna.

TERMINO TEKNIKOEN DEFINIZIOA

Jarraian, dokumentuan zehar erabili diren termino teknikoak definitzen dira, horiek guztiak zuzen interpretatu eta ulertu direla ziurtatzeko:

- Iruzurra: edozein egite edo ez-egite, baldin eta adierazpen edo dokumentu faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabiltzen edo aurkezten badira, informazio jakin bat ezagutarazteko berariazko betebeharra urratzen bada eta funtsak eman ziren helburuetarako ez beste batzuetarako erabiltzen badira.
- Ustelkeria: Europar Batasunaren finantza-interesentzako mehatxu bereziki larria, maiz, iruzurrezko portaera bati lotuta ere egon daitekeena. Esaterako, funtzionario publiko baten irizpide edo balorazio diskrezionalean eragin-asmoz egindako eroskeria, eroskeria onartzea, funtzionario publiko horren herrialdean edo nazioarteko erakundean aplikagarriak diren lege- edo erregelamendu-xedapenei muzin eginda.
- Interes-gatazka: exekuzioan eta kudeaketan parte hartzen duten finantza-eragileek eta

gainerako pertsonak beren eginkizunak modu inpartzial eta objektiboan gauzatzea arriskuan egotea, familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kideetasun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoiengatik.

- Irregularitasuna: Europar Batasuneko zuzenbidea edo Espainiakoa aplikatzearen urratze oro, exekuzioan parte hartzen duen operadore ekonomiko baten egite edo ez-egite baten ondorioz, Europar Batasunaren aurrekontuaren kalterako bada edo izan badaiteke, aurrekontuan gastu-partida bat arrazoirik gabe sartzeagatik.
- Iruzur-susmoa: estatu mailako administrazio-prozedura edo prozedura judizial bat hastea dakarren irregularitasuna. Nahita egin den ebatzi nahi da prozedura horren bidez; alegia, iruzurra ote den, Kontseiluaren 1995eko uztailaren 26ko Egintzan ezarritako Europako Erkidegoen finantza-interesak babesteari buruzko Hitzarmenaren 1.1.a) artikulua araberak.
- Ingurumenari kalte nabarmenik ez egitea: ingurumen-helbururen bati kalte nabarmena eragingo dioten jarduketak ekonomikorik ez babestu edo gauzatzea, 852/2020 EB Erregelamenduaren 17. artikuluan adierazitako moduan.
- Kontrola: estatu kideek ezarritako kontrol-sistemen funtzioa da kudeaketa eraginkorra eta finantza-ikuspegitik egokia dela ziurtatzea. Horretarako, zenbait instantziak eragiketen kontrolak eta auditoretzak egingo dituzte, eta jarraipen- eta kontrol-sistemen beraien kalitatearen egiaztapenak eta auditoretzak ere bai.
- Egiaztapen-zerrenda edo *checklist*-a: izapide jakin bat formalizatzeko behar diren eskakizunen zerrenda eta dokumentazioa biltzen dituen agiria. Eskakizun horiek egiaztatzearen eta aipatu dokumentazioa jasotzearen arduradunak bete beharko du, eta bere sinadurarekin eta data adierazita jasota utziko du.
- Bandera gorria: iruzur-arriskua egon daitekeelako alarma-seinalea/adierazlea.
- Entitate erabakitzaila: SEEPean aurrekontu-zuzkidura duten ministerio-sailak, zeintzuei baitagokie erreformen eta inbertsioen plangintza eta jarraipena egiteko ardura, bai eta horien mugari eta helburuak betetzeko ere.
- Entitate betearazlea: proiektuak (ministerio-sailak eta EAoren entitateak) edo azpiproiektuak (ministerio-sailak, EAoren entitateak, EAeko Administrazio Orokorra, toki-administrazioa eta sektore publikoko gainerako partaideak) entitate erabakitzailaren irizpideen eta jarraibideen arabera gauzatzeko ardura duen erakundea.
- Kudeaketa-organoa: erakunde betearazlearen eremuan, proiektuaren edo azpiproiektuaren kudeaketa-txostena egin, sinatu eta izapidetzeko ardura duen organoa da.
- Agintaritzaren arduraduna: Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Europako Funtzen Idazkaritza Nagusiak erakunde arduradun gisa jardungo du Europako erakundeen

aurrean, 36/2020 Errege Lege Dekretuak esleitzen dizkion baldintzetan eta eginkizunekin.

- Kontrol Agintaritza: Estatuko Administrazioaren Esku-hartzailera Nagusia, Europako araudiak Suspertze Tresnaren kontrol-agintaritzari esleitzen dizkion funtzioak izango dituena.
- Espainiako Iruzzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzua (SNCA): Estatuko Administrazioaren Esku-hartzailera Nagusiaren organoetako bat da, irailaren 19ko 802/2014 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. apartatuaren arabera. Dekretu horrek, besteak beste, Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duen urtarrilaren 27ko 256/2012 Errege Dekretuaren 11. artikulua idatzera aldatzen du. Haren eginkizunak abuztuaren 3ko 682/2021 Errege Dekretuaren 19.5.h) artikuluan jasotzen dira (Ogasunaren eta Funtzio Publikoko Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duena eta urtarrilaren 28ko 139/2020 Errege Dekretua, ministerio-sailen oinarritzko egitura organikoa ezartzen duena, aldatzen duena), bai eta Europar Batasuneko finantza-estrategiak sortzeko eta abian jartzeko beharrezko diren administrazio-interesak sustatzeko eginkizunak dagozkion zuzendariordetza nagusiaren mailan ere; Europar Batasuneko funtsak kudeatzeko estatu-sistemek izan ditzaketen hutsuneak identifikatzea; estatu-erakundeen eta OLAFen artean irregulartasunei eta iruzur-susmoei buruzko koordinazio- eta informazio-bideak ezartzea; eta iruzurrari aurrea hartzeko eta aurre egiteko prestakuntza sustatzea.
- Iruzzurraren Aurkako Borrokarako Europako Bulegoa (OLAF): Europar Batasuneko (EB) erakunde komunitarioek beren finantza-interesak babesteko sortutako erakunde da, eta bere erantzukizun nagusiak honako hauek dira: EBko funtsei eragiten dieten iruzurrari eta ustelkeriari buruzko ikerketa independenteak egitea, EBko zergadunen dirua Europan hazkundera eta enplegua sor dezaketen proiektuetara bideratzen dela zaintzeko; herritarrek Europako erakundeetan duten konfiantza indartzen laguntzea, EBko langileen edo EBko erakundeetako kideen falta astunak ikertuz; eta EBn iruzurraren aurka borrokatzeko politika sendoa garatzea.